


TORIBIO ALZAGA ANABITARTE

RAMUNTZO



AUSPOA LIBURUTEGIA

RAMUNTZO

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 6 -

Colección Auspoa - Plaza Santa María, 2 - Tolosa

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta.

Atzerrian: 275 peseta.

Ongilleak: 350 »

Ale bakarra: 25 »

TORIBIO ALZAGA ANABITARTE

RAMUNTZO

iru egintza ta sei laukidun antzerkia
Pierre Loti'k sortua
Rodrigo Figueroa Torres jaunak
gaztelarrez tajutua
ta Toribio Alzaga'k euskeraz tajutua

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 716—1961

ARKIBIDEA

	Orri- aldia
Toribio Alzaga Anabitarte... ..	9
RAMUNTZO	19
Banaketa	19
Lenengo Egintza:	21
Lenengo Laukia	21
Bigarren Laukia	39
Bigarren Egintza:	63
Irugarren Laukia	63
Laugarren Laukia	86
Irugarren Egintza:	95
Bostgarren Laukia	95
Seigarren Laukia	110

TORIBIO ALZAGA ANABITARTE

(1861 - 1941)

Donostian jayo zan, "31 de Agosto" deritzayon kalean, 30'garrenean, 1861'garren urteko Apirillaren 16'ean.

Bere denbora guzian Toribio esan zioten, baina berez Jose Maria Toribio omen zan. Orregatik, Erriko Etxeko paper-agerietan orrela jartzen omen zioten: "*Jose María Toribio, conocido por Toribio...*"

Karlisten bigarren gerra denboran Frantzia izan zan, Ziburu'n. Bachillerato guztia an egin zun. Soroa ere an zan, ta "Idiyarena" sortu zunean, Alzaga ere azaldu zan komeritartan. Bai barrena sartu bear zitzayola zaletasun ura. Artean 13 urteko mutilla zan.

Iru anai arreba ziran: Toribio, Baleriano ta Soledad.

Aitak (Pedro Juan) aroztegi bat zeukan "31 de Agosto" kalean, 15'garrenean. Bañan ez Toribio ta ez onen anai Baleriano etziran lan orren zale. Lanean baño nayago zuten teatro-paper bat buruz ikasten edo komerietako jantziak prestatzen. Aita asarretu ta esaten zien: "Mutill abek komikoak izango dira". Egia zion. Baleriano gizon gazterik il zan, bañan Toribiok aitarena utzi ta etzuan teatroa beste "ofiziorik" izan il arte.

Soroarekin asi zan komeriak prestatzen. Santa Mari'ko Luistarrak teatro-toki bat antolatu zuten Santa Martaren *saloyean*, ta urrena, berriz, lengoa laga ta kale nagusian, 7'garreneko bigarren bizitzan. Alzaga bietan sayatu zan teatro-lanean. *Centro Católico*'an ere sayatu zan, Barriola, Lapazaran. "Praile Motz" ta abar lagun zitula.

1888'an, 27 urtekin, bere lenengo kome-ria argitaratu zun: "Aterako gera". Bigarrena "San Tomas-eko feriya" izan zan, 1892'an antolatu ta 1894'ean argitaratua.

Urrena, iru opera: "Txanton Piperri" (1899), "Anboto" (1906) ta "Gli kornamenti", azkeneko au par eragitekoa; Buenaventura Zapirain jaunak (1874-1937) musika ta Toribio Alzaga'k itzak.

Arrezkeroztik etorri ziran: "Axentxi ta

Kontxexi" (1914), "Bernaiño'ren Iarriyak" (1915), "Oleskari berriya" (1916), "Txibiribiri" (1918), "Ramuntxo" (1920) (gaur argitaratzen deguna), "Andre Joxepa Tronpeta" (1921), "Eleizatxoko ardazlea", Gorostidi'rena au berez ta Alzaga'k berriztatua, "Arpuxa kalian" bakarizketa (1922), "Bost urtian" (1922), "Etxietan" (1923), "Zalaparta" (1923), "Amantxi" (1923), "Tantarrantan" (1923), "Zanpantzar" (1923), "Neskazar" (1924), "Irritza" (*Macbeth*) (1924), "Babalora", "Urdallekoa", "Burruntziya", "Ezer ez ta festa", Soroa'rena au berez ta Alzaga'k berriztatua, "Gizon ona", "Osaba", "Mutil zarra". Oyek guk dakizkigunak. Guztira, ogei ta amar bat.

"Irritza" (*Macbeth* euskeratua) Londres'tik eskatu zioten, "Department of Printed Books, British Museum" deritzayon tokitik. Lau bat ale bialdu zitun ta Inglaterrako liburutegi nagusienetan partitu omen zituzten.

Bein galdetu zioten zein ote ziran, bere iritzian, bere komeri onenak. Erantzun zun onenezat "Bost urtian" jotzen zula, urrena "Amantxi" ta gero "Irritza".

San Juan kalean bizi zan ta etxeko seigarren bizitza utsik zeukan. An, saloi aundi bat, gela bat komerilariak jantzirik aldatzeko, ta zapi aundi bat goitik bera; gañerako tokia alki

arlotez beterik zegon, ta denak bazekiten alako alxia alako familiarena zala, beste ura zearena, ta orrela. An aritzen ziran teatro-lanean Manolo ta Inazio Baroja, Galatas, Fernando Zubiri ta beste asko. Negu aldian iya jayero.

Donostiko Erriko Etxeak "*Academia de Lengua y Declamación Vasca*" deritzayona. sortu zunean, Alzaga aukeratu zuten ango maixutzat.

Egunero aritzen zan paperak kopiatzen, komerilariak erakusten, *decoradoak* ta bear zana guztia prestatzen. Bazkaldu ta berealaxe berelangelara. Askotan, besoak mugitzen ta izketan aritzen omen zan: alegia, bakoitzak nolaeigin bear zun, bere buruarekin aurretik sayatzen. Emaztea ta alabak teatorako soñekoak josten eukitzen zitun.

Maixu ona ote zan jakiteko, naikoa da esatea Beorlegi, Egileor, Ugartechea, Echeverria, Mugica, Pepita Aramendi, Irigoyen, Goicoechea ta beste komerilari prestu asko ere Alzaga'ren ikasleak izan zirala. Zenbat teatro jaialdi prestatu ote zitun, Jaungoikoak bakarrik daki.

Academia ortan eman oi zitun euskerazko eskolak etzitun idatzi. Bañan bere ikasle bateg, Raimundo Herrero Tornadijo jaunak, lan eder ori egin digu. Alaxe dio: *ESTUDIO*

ELEMENTAL DE LA GRAMATICA VASCA, según las lecciones explicadas por el Profesor de Lengua y Declamación Vasca, D. Toribio de Alzaga (q.e.g.e.) por un su discípulo.

Bere jazteko modua omen zan zamarra aundi bat (*chaquetón*), galtza beltzak, ta *visera* bat buruan. Ikasleen bat eskolan sartzean, *visera* kendu ta esaten zion: "Gabon Jainkoak eman deigula".

Lan aukerak etzioten txolarterik uzten ta Donostian etzun astirik izaten komeri berririk idazteko. Lan ontan, Aizarna'n sayatzen zan geyena. Urtero erri ontara etortzen zan udara igarotzera. Bere komeri batzuen gaya ere Aizarna'n bertan artu omen zun.

Bein Aizarna'tik Santa Engrazi'ko ermitarra zijoan, seme-alabakin eguna igarotzera. Ego kitu zan baserritar neskatil bat ere bide artatik bere astoarekin. Pardelak eramateko aukera oberik ezin izan zitekeala ta neskatillari esaten asi zitzaion: "Entzun, neskatxa, ¿zuzen al noa Santa Engrazi'ra?" Bañan neskatillak igerrri nunbait ta erantzun: "*No entender, no entender castellano*".

1930'garrengo Abenduan, jai-aldi bat egin zan Alzaga'ren gorantz: komeriak, dantzak, itzaldiak, txistulariak, bertsolariak, ... Bazkari ona ere bai. Garai artan *Academia* Garibay ka-

lean zegon, gaur "*Caja de Ahorros Municipal*" dagon ortan, goyeneko bizitzan, tellapean esate baterako. Jai aldi ori zala ta, bespera arratsean edo, periodista bat goi artara joan zitzaion *interview* bat egitera.

Zamarra lodi batekin jantzita arkitu omen zun. Oñak berotzeko, berriz, noizean bein jeki ta pauso batzuk eman bear. Alaxe jarri zun periodikuan: Egun bateko bazkari goxoa bañon obe izango luke negu guziko estufa on bat.

San Tomasetan, Joxe Bernardo, Udarregi, Pello Errota, Gaztelu, Txirrita, ta orduko bertolaririk jatorrenak kantu-lanera etortzen ziranean, Alzaga beti jartzen zuten mayean edo Juraduan.

1901'garren urteko Apirillaren 16'ean ezkondu zan, 40 urte betetzen zitun egunean. Andregaya, Maria Pilar Fernández Mugica andereñoa zan.

Bi seme ta iru alaba izan zituzten, bañan etzuten ayekin suerte onik izan. Gazteena bakarrik bizida, Maria Luisa. Berari zor diozkio gu emengo berri geyenak (1). Beste danak aitarren denboran il ziran.

(1) Idaz-lan ontaz ere baliatu gera: Gabriel Zapiain: TORIBIO ALZAGA Y EL TEATRO VASCO. ("San Sebastián", año XXI, 1955).

Zarrena, Luis, jayo ta berealaxe.

Bigarren mutilla, Jose Jabier, aita ber bera zetorren. Oso teatro zalea. Pozik azaltzen zan komerietan. Ura ezagutu zuen batek, Manolo Baroja jaunak, alaxe dio: "Beorlegi bañon ohea zetorren". Bañan 18 urtekin tifusekin il zan. Urte asko ondoren periodista batek aitari galdetu zion: "Zein izan dezu zure denbora guziko naigaberik garratzena?" ta Alzaga'k segituan: "Nere semearen eriotza".

Alaba bat, Maria Paz, 1928'ean il zan, 16 urtekin.

1940'ngo Otsaillaren 14'ean, beste alaba bat il zitzayon, Maria del Coro, 33 urtekin. Alzaga oso zartuta zegon ta biotzetik gaizki zebillen. Orregatik, alaba iltzera zijoanean, debekatu nai izan zioten gaxoaren gelan sartzea. Ala esan omen zun: "Oraindaño, etxeko eriotz guziak ikusi ditut, eta oraingo au ere ikusi egin bear det". Oyaren ertzean jarri zan. Beste danak negarrez ta bera, berriz, alabari esaten: "Orain zerura, Korito, orain zerura,..."

Urrengo egunetan ere, ildakoaren ama ta arroba maiz ekiten zioten negarrari. Aitak esaten zien: "Ez dezute ondo egiten; Jaunaren borondatea alaxe izan da, ta ez dezute ondo egiten". Bañan apalondo baten, jan-tokian aita

bakarrik gelditu zan. Alaba bat batean sartu ta belauniko ta negarrez arkitu zun. Aita negarrez ikusten zun lenengo aldia.

Urte artako Martxuaren 14'ean, amagiarreba il zitzayon. Urrengo urtean, 1941'ean, bere txanda izan zan. 80 urte zitun. "*Asma cardiaca*" zuen. Mayatzaren bukaera zan.

Bere illoba bat, Jabier Villar, medikua izan da aretxek kontu egiten zion. Alabari esan zion: "Onezkero komeni litzake gauza guztiak egitea".

Alabak apaiza deitu zun, Eusebio Astigarraga jauna. Au gaxoaren gelatik ateratzean, alabak galdetu ta apaizak esan zion: "Oraindik ez omen du presarik, oso ondo dagola". Ta alabak: "Momentu ontan bai, bañan noiz-nai izan dezake ito-aldiren bat". Goiz-aldea zan ta arratsaldean etorriko zala berriro.

Illoba medikua etorri zan. Oso gaizki arkitu zun. Alzaga oso tabako zalea izan bazan ere, erretzea debekatuta zeukan. Ain gaizki ikusita, illobak esan zion: "Osaba Toribio, zigarro bat egin bear diot". Artu ta oso gustora erre zun. Azkenekoa izan zan.

Apaiza ostera etorri zan ta gaxoarekin denbora puska bat egin zun.

Urrengo goizean elizakoak. Ramon Inzagari apaiz jaunak ekarri zizkan. Ala esan

zion: "Etzitzaidan neri tokatzen, bañan zu zeralako neronek ekartzea nai izan det".

Eguerdi aldean lotan zegon. Bazkalondoan, gaxoak ere zeozer artu bearko zula ta alaba aitarengana joan zan. Esnatu ta esan zion: "Aita, marrubirik nai al du?" Oso marrubi zalea zan. Ba, orduntxe, ito-aldi batek artu zun. Apaiza ta medikuak deitzeko. Deituta-koak etorri ziranean, zentzua galduta zegon. Andik laister il zan.

Arratsaldeko laurak ziran, ta Mayatzaren 27'garrena.

RAMUNTZO

1920, Otsaillaren 16'n, Donostiko Antzoki zarrean, bertako Iztunde ikastolako antzezlariek lenengo aldiz aurkeztua izan zan.

BANAKETA

ANTZEZNOTIÑAK	EGINTARIAK
Lekaidaba	Aramendi andereñoa
Pantxika	Olaso "
Maritxo	Aramburu "
Dolorex	Arzelus "
Pilar	Areitioaurtena "
Sor Balentina	" "
Ana Mari	Irigoyen "
Justina	Sustaeta "
Ramuntxo	Beorlegi jauna
Itxua	Egileor "
Arroxko	Lasa "
Apaiz jauna	Etxeberria "
Florentino	Mujika "
Sendagillea	Bengoetxea "
Lasarte	Agote "

Erriko gizon eta emakumeak,
lekaimiak eta abar.

LENENGO EGINTZA

LENENGO LAUKIA

(Lasarte'ko urian Ramuntxo'ren etxe-ko beko bizitzan ezkaratza. Eskuiko txokoan sukaldea, bertan erratilo batean zerbait jaki. Erdian mai bat, mai zapia jarrita, bere gañean txali (platera) zali (kutxaria) eta sagardo txarro bat. Atzeko aldian ate bat, bera irikitzean kale ta landa zerbait agertzen dala. Leyo bat. Eskuyean barrengo geletara joateko ate bat. Ezkaratzari dagozkion etxe-tresnak. Argiontzi bat pixtua. Gañerakoan irudi-zuzendariari deritzaion bezela. Gaba da).

LENENGO IRUDIA

I

Pantxika ta Ramuntxo

(*Ezkuta-zapia igotzerakoan Ramuntxo atzeko atetik sartzen da*).

RAMUNT XO.—Ama: aparia gertu al dago?

PANTXIKA (*Maya jarria erakutsiaz*).—Etortzen ikusi baindutan ere, ez ukan gertuago egongo... Ateratzera niak, eta exeri adi.

RAMUNT XO (*Mai ondoan exeriaz*).—Ler egin det. Logaleak berriz iya erori naiz... eta ala ere eguna argitu baño len jeiki bear...

PANTXIKA (*Naigabez*). — ¿Gaur ere bai?

RAMUNT XO.—Bai, ama: gaur ere bai.

PANTXIKA.—Baña, mutil...

RAMUNT XO.—Zer nai du bada. Itz eman det eta...

(*Pantxika'k aparia atera dio, ta Ramuntxo apaltzen asten da*).

PANTXIKA.—Itz eman dekala... (*Sukalde ondoko alki batean exeriaz*). Asteontan bertan onenean, soldaruzkara juan bearko dek. Iru urte luzean —ama batek bakarrik zekik zein luzeak izango diran— arrisko gogorren artean ibilli bearko dek, nere ondotik urruti, nere begiak iritxiko ez auten tokietan, nere biotzaren urrean egon arren. Eta, orain, nere ondoan eukitzez aseko ez nitzaken garai tamalgarri onetan, baoakit egunez, baoakit gabaz...

RAMUNTXO.—Ama, etzaitia orrela atsekabetu, zure negar-marraskak barrena zauritzen didate ta.

PANTXIKA.—Ongi diok. Une onetan ez diat geyago garrastu bear ire zoria.

RAMUNTXO.—Ez dizut orrengatik esan...

PANTXIKA (*Izketa batetan aldatuaz*).—¿Gaur gabea zer igaro bear dezute?

RAMUNTXO.—Seda ta terziopeluak.

PANTXIKA.—¿Nor zuazte?

RAMUNTXO.—Betikoak: Itxua, Arroxo, Florentino ta Iraola bi anayak. Beti bezela Itxu'en gain goaz eta Frantzirakoan *tabakua* eramango degu.

BIGARREN IRUDIA

II

Lengoak *eta* apaiz jauna

(*Apaiz jauna, gainjantzi (manteo) ta txapel luzearekin, atzeko atetik sartzen da*).

APAIZ JAUNA.—Jaungoikuak gau ontxo bat dizutela.

PANTXIKA.—Baita beorri ere.

RAMUNTXO.—Ongi etorri.

PANTXIKA.—Aurrera, aurrera, apaiz jauna, eguraldia ez dago ate ondoan ego-teko ta.

APAIZ J.. (*Sartuaz*).—¿Bañan zer da au? Exertzera bereala; ta ik, Ramuntxo, aparitan jarrai zak.

(*Apaiza agertzerakoan, ama semeak altxatu dira, ta orain berriro exeri, ta Ramuntxo'k apaltzen jarraitzen du*).

PANTXIKA.—Gizarajoa zutik ezin dago. Jaungoikoak, orain arte, osasun ona eman dio; bañan, orain daraman bizikerekin galduko ez ote duen ere, bildur naiz.

APAIZ J.—Ez dezu gauz oietan oldoztu bear. Jaungoikoa ez da onaz beñere aztutzen.

(Pantxika'ren aldamenean exertzen da).

Olazabal zarra orain ikusi det. Gizarajoa ez dago ondo. Ez dakit zer ikusteko gauden... Gero, emendik igarotzerakoan, gogoratu naiz zerbait esan bearko zenidala ta...

PANTXIKA *(Ixil antzean)*.—Asko, jauna. ¡Ainbeste gauz esan nai nizkioke! Ramuntxo oyeratzen danean pixka batean gelditu al baledi.

APAIZ J.. — Nai dezun guzia. Nere apari-legea eginda etxetik irten naiz, eta alderdi orretatik ez daukat lastertu bearririk...

(Ramuntxo logaleak menperatu du, ta burua beso gañian jarriaz lo gelditu da.. Zurrunka txiki batzuek egiten ditu).

Baña, zaude... Mutil ori loak iya artu du.

PANTXIKA *(Altxa ta Ramuntxo'gana juanaz)*.—Iya... ez, jauna: oso osorik.

(*Ramuntxo bultzatuaz*) ¡E!... ¡Ramuntxo!...

(*Ramuntxo erdi izutua esnatzen da*).

¿Apaiz jaunaren aurrean ez al zera lotsatzen?

RAMUNTXO.—Azketsi jauna,... bañan, zera... bart ez nuen begirik itxi ere ta...

APAIZ J.—Bai, mutil, bai. Loari berea eman bear zaok.

PANTXIKA.—Ua oyera, ua. Utzi dekan aparia, gero, bidean jateko, errekin eramango dek.

RAMUNTXO.—Obe izango da... Gabon, apaiz jauna.

APAIZ J.—Agur, eta ondo lo egin.

(*Ramuntxo eskuitik joaten da.*)

IRUGARREN IRUDIA

III

Pantxika *ta* apaiz jauna

PANTXIKA (*Ramuntxo'ri ateraño lagundu dio, ta arrek alde egindakoan, apaizaren aldamenera biurtuko da*).—Bart, zaldi batzuek pasatzen izan ziran eta eguna argitu ta gero etxeratu zan. Eta orduan oyeratzeko ordez, enparantzara, dantzara joan da, gero pelotan jokatzera; ta orain lotura batzuek ekartzera joateko bereala jeiki bear du. Esan bezait au dan bizitzeko itxura.

APAIZ J.—Ez dezu orrela zure burua estutu bear.

PANTXIKA.—Alako ederki, nere semea arotz ikasten jarria neukan; eta Itxua, zoro orrek, aroztegitik atera, ta arriskoko bizikera onetan jarri dit. Nere abotik biraurik irten al baledi, guziak Itxua'ren gain joango lirake. ¡Nork esan bear zidan! ¡Nere Ramuntxo kontrabandixta!

APAIZ J.—Begira zazu, Pantxika: gure artean kontrabandoa da gauz bat iñor lotsatzen ez duena. Euskaldunai jatorriz

datorkigu, odolak ematen digula dirudi... ta gañera, ori da pekatu bat, Jaungoikuak karabineruak baño errexako barkatzen duena.

PANTXIKA.—Ez det ezetzik esango, nere aita ere kontrabandixta zan da. Bañan, nik daramazkidan gau kezkatu abek...

APAIZ J.—Nere aita ere, zurea bezela zan: kontrabandixta. Bañan, ziur nago, zeruan sartzeko ez zuela ur beinkaturik ere artu bearrik izango. Kontrabandixta, bai; baiñan iñon dan gizonik zuzen, zorrotz, zintzoena zan.

PANTXIKA.—Bai, Jauna, bai.

(Ateko irriñartetik eta leyotik tximisten argitasuna ikusten da, ta urruti-ekaitzaren burrunbak entzuten dira.)

Beorrekin egon nai nuke, baña eguraldiak geroago ta itxura txarragoa dauka.

APAIZ J.—Ez dezu orrengatik naigabetu bear. Nere etxea ez dago urruti; ta gañera, oraingo gazteak bezela, nik *gabardina* deitzen diyodan jazki au bizkar gañera bota det, eta ez dago bildurrik. ¡Nere jazki zar onen gañera erori diran eudi jasak!... Onen gañera, ta nere gañera ere bai. Bata ta bestea oituak gaude:

beaz, eta ekaitzaren ajolik gabe nai dezuna esan zenezaidake. Bañan, badakit, Ramuntxo ta Itxua'z itzegin naiko didazula.

PANTXIKA.—Ez, jauna. Atzo arte Itxuak naigabetzen ninduen. Gaur, ez ainbeste. Beorrek dakien bezela, Ramuntxo, egun gutxi barru, soldaruzkara joango da, ta Itxuak etxe ontakoak egingo ditu.

APAIZ J.—¡Gizarajoa! Itxuarekin laztzegia zaude. Zure semea oso maite du, ta besterik ez bada, orrengatik bakarrik barkatu bear zenioke. Gañera, ain da jostallu, alai, pozgarria..., nik oso gogokoa det. Baña, goazen; ikusten dedanez, ez didazu oyetzaz itzegin bear.

PANTXIKA (*Beldurti*).—Ez, Jauna.

APAIZ J.—¿Zutzaz?

PANTXIKA.—Bai, jauna. Nitzaz... eta Dolorex Detxarri'tzaz.

APAIZ J.—¿Zer da? ¿Bere alabari ez al dio uzten Ramuntxo'rekin ibiltzen?

PANTXIKA.—Oraindikakoan, bai; baña gogo txarrez. Eta nere semeak emendik alde egindakoan zer egingo ote duen bildur naiz. Badaki, Ramuntxo oso txoraturua dago... neskatzak ere nai dio... ta

zerbait gertatuko balitz... nere seme gazoaren biotza zauritu lezaken zerbait...

APAIZ J.—Goazen, goazen, txorakeri oiek utzi itzazu alde batera.

PANTXIKA.—Orrelakorik gertatuko balitz, nigatik izango litzake, nigatik.

APAIZ J.—¿Nola?

PANTXIKA.—Bai, jauna, bai. Dolorex'ek ez du Ramuntxo gorrotatzen beragatik, nere semea dalako baizik... (*Lotsaturik*) Nerea... ta beorrek dakien beste arre-na. (*Zotinka*).

APAIZ J.—¡Beti gauz bat! Oker zaude, Pantxika, oker zaude. Amabost urtean daramazun kristautasunezko bizikerarekin zure obena garbitu dezu. Jaungoikoak noski barkatuko zizun. Orretzaz aztu bear dezu bada, guztioi aztu zaigun bezela.

PANTXIKA.—Guztioi, ez: Dolorex'i ez zayo aztu.

APAIZ J.—Zure itxura gabeko kezkek dira oyek. Egia da, Dolorex setatsua ta latz xamarra dala, bañan emakume elizkoi ta ona da; ta bere garayan neroni bi-tarteko jarriko naiz, bi gazteak zorionekoak izan ditezen.

PANTXIKA.—Eskerrik asko, jauna,... bañan Dolorex'ek...

APAIZ J.—Dolorex'ena egingo degula esan dizut, eta gai orretzaz ez daukazu ezer geiago esan bearrik. kezka bat...

PANTXIKA.—Ala da; baña, badaukat

APAIZ J.—¿Zer, gero?

PANTXIKA.—Gau askotan... edo garbiago esateko, gau guzietan, kezka batek lorik egiten ere ez dit uzten.

APAIZ J.—Zer dan, jakin zagon.

PANTXIKA.—Ama baten naitasun berekoiak ez dio uzten bere semeagandik aldentutzen; eta orrela daukat nerekin Ramuntxo. Txiro ez-jakin, ogi puska barentzako irabaziko badu, arrisko artean ibilli bearrik. Beste... gizon arrekin utzi izan banu, uri aundian, ezereen bearrik gabe, zorionekoa izango zan onenean...

APAIZ J. (*Altxiaz*).—Gaizki zuaz bide orretatik, Pantxika, oso gaizki. Emen, zure aldamenean, Ramuntxo izango da zuk nai dezun bezin txiro, ez-jakin, eta baita ere kontrabandixta... ¿Ori da noski geyena minberatzen zaituena?

PANTXIKA.—Ez, jauna; orrenbesteraño ez.

APAIZ J.—Bañan euki ezazu gogoan, zuk erakutsi diozun kristautasunezko fede atseginkorrarekin, emen, gure artean galdu ez lezaken siñespen biziarekin, ludiko aberastasun guziakin baño zorionsuagoa izango dala. Gure erlijio doneak egiten dizkigun eskeintzetan siñestea, aberastasonik naigarriena orixe da.

PANTXIKA.—Ala da, jauna.

APAIZ J.—Eta gai onetzaz naikoa itzegin degula iduritzen zait. Bigar ere etorriko natzaizu, ta zerbait geyago itzegingo degu. Bitartean, kezkak utzi alde batera, ta ez eman buruari alperrikako lanik.

PANTXIKA.—Alegiñak egingo ditut.

APAIZ J.—Ekaitza gañean izan bear degu, ta nere ezur igartuak etxeratzera nua.

PANTXIKA. — Nere euritakoa emango diot.

APAIZ J. (*Manteoa erakutsiaz*).—¿Zertarako? Esan ez dizut bada, bizkarrean daukadala *gabardina*?

(*Berriro tximistak eta eudi-ots aundia*).

PANTXIKA.—Eudi asko ari du, ta euritakoa obe du artu.

APAIZ J.—Ekarri zazu bada, ekarri. Bestela, zuregatik apaiza busti dala, or egongo zera kezketan gau guzian ta.

(Pantxika'k euritakoa ekartzen dio, ta Apaiz jaunak sotana pixka bat jaso ondoren artzen dio.)

Eta orain, esanak esan, kezka guztiak baztarreratu, barren ori lasaitu, ta Jaungoikoaren itzalpe atsegiñean gau on bat igaro.

PANTXIKA.—Baita beorrek ere.

APAIZ J. *(Atean euritakoa zabalduaz).*
— ¡A zer gaba jarri duen ! ¡Au eudi jasa !
¡Orain erori dan tanto batek, a zer kanarrekoa eman didan ! Bigar arte bada, e.

PANTXIKA.—Bijoa ondotxo.

(Apaiz jaunak atzetik juaten da.)

LAUGARREN IRUDIA

IV

Pantxika, geroxeago Itxua atzetik eta gero Ramuntxo eskuitik.

(Apaiza joaten danean, Pantxika aurreratuko da, maya jasoko du. Ramun-

txo'ren aperi kondarrak zapi batean bilduko ditu; ta argia artuta eskuirontz asiko da.)

(Une onetan, txixtu zorrotz eta luze bat, kanpoan alde xamarrean egiña entzuten da.)

PANTXIKA (*Arritu ta naigabetua*).—
¿Dagoaneko? ¡Loak, oraindik, doi doi artuko zuen da!...

(Beste txixtua entzuten da. Pantxika'k argia berriro bere tokian utzi, atzera joan ta atea irikitzen du. Itxua agertzen da.)

Aurrera, Itxua, aurrera.

(Itxua geldirik.)

Ez nuen uste orren laster etorriko ziranik.

ITXUA (*Atetik*).—Ordua aurreratu bear izan degu. Badakizu onelako ekaitz igarokorrakin zer gertatzen dan. Gutxiena uste danean, illargiak bere gazta Plandes'koen arpegi zuria agertzen digu; ta orduan gureak egin du. Orrengatik alik eta lasterren ibilli bear degu.

PANTXIKA.—Bañan, gizona: ¿Zer egi ten dezu or, atean jarrita? Sartu zaite, ta itxi zazu atea.

ITXUA.—¿Sartu?

PANTXIKA.—Sartu, bai, ta itxi; garbi asko esan dizudala uste det.

ITXUA.—Sartu... bai, sartuko naiz; bañan, itxi...

PANTXIKA.—¿Nere bildur al zera bada?

ITXUA (*Oso patxaran*).—Bai, andria. (*Sartzen da.*)

PANTXIKA (*Parrez*).—Orren ikaragarria al naiz bada?

ITXUA.—Neretzako, bai; ez da karabinerorik zuri aña bildur diodanik.

(*Pantxika'k par egiten du.*)

Par egin zazu, bai; bañan, Pantxika, zuk ez didazu ondo nai; ta ez didazu ondo nai, oker zaudelako. Zuk uste dezu, Ramuntxo ibillera abetan nik sartu dedala, ta ez da orrela. Mutilla, bera bakarrik sartu da. Aurrak ttapa-ttapa amaren magalera joaten diran bezela, ori ere bere kaus, barrengo griñak bultzatzen zuen lanera joan da. A! ta kontrabandixtetan bikañenetakoa da. Azkarra, bizia, kemenetsua, arriskorik estuenetan bare aundikoa, nekea zer dan ez dakiena. Orrek kontra-

bandoa sartuko luke... baita karabine-
ruen sudur zuloatik ere.

PANTXIKA.—¿Asko maite dezu, e?

ITXUA.—¿Maite dedan? Nik ama izan
bear banu, semetzat ori eskatuko nuke.

PANTXIKA (*Parrez*).—Bai, bai; orain
ere, zuri, neri baño geyago entzuten dizu.

(*Eskuiko atetik deituaz*) ¿Ramun-
txo!... Ibilli adi azkar; Itxua emen dek
eta.

ITXUA.—Ai zazu, Pantxika, ta... ¿gaur
zer santu dan jakin al liteke?

PANTXIKA.—¿Zergatik gero?

ITXUA.—Etxe ontan egin dan mirariaz
nori eskerrak eman jakiteagatik.

PANTXIKA.—¿Zer bada?

ITXUA.—Beñere ez bezela, nerekin oso
atsegintsu zaudelako.

PANTXIKA.—Zuzen zaude. Santu bati
aldaketa ori zor zayo. Baña santu ori ez
da oraindik aldaretara iritxi.

ITXUA.—Berria izango da ta.

PANTXIKA.—Ez da berria, zar xama-
rra baizik. Erriko apaiz jaunari aldaketa
au zor diozu.

ITXUA.—¡A! Apaiz jauna! Ori da gi-
zona, ori. Bizi bizirik zeruen erdian dago.

PANTXIKA.—Ez dakizu ongi.

ITXUA.—Prantzi aldi orretan, apaiz-jantzi oyetako bat arkituko banu, pozik ekarriko nioke.

PANTXIKA.—Ez lizuke artuko. Txoraturik ez badago bada, bere *gabardina* deitzen dion orrekin.

ITXUA.—Txinixten dizut. Len ekarri nion sedazko txano bat ¡polita gero!, bere koxkabillo batera ta bestera eroriaz, eguraldi ona edo txarra adierazten zuenarekin. ¡Eta ez zuela artuko ez zidan esan bada! An ikusiko ginduzun, arrek ezetz eta nik bayetz. ¡Iya burrukan asi giñan biak!

PANTXIKA.—Zuk esateko ez da asko.

RAMUNTZO (*Eskuitik sartuaz*).—Txixtuak entzun nituen. Nai dezunean joango gera.

ITXUA.—Goazen bada. Al dana aurre-ratu dezagun.

PANTXIKA (*Zapian bildutako aperi kon-
doa Ramuntxo'ri emanaz*).—Ar zak, seme, ta bidean jango dek.

(*Itxua'ri*).—Eguraldi txarra daramazute. Gaba oso illuna dago.

ITXUA.—Ori bear degu bada. Zenbat eta illunago, obe. Illuntasun batek baka-
rrik ikaritzen gaitu: karabineruen kopet
illunak.

RAMUNTXO.—Agur, ama. Gero arte.

PANTXIKA.—Agur, seme. Ondo ibilli.

ITXUA (*Pantxika'ri*).—Jakiñen gañean
egon zaitia, apaiz jauna beti sudurrari
teinkata ari dala, purrukatu bear duela;
bañan nik Prantzi'tik berri bat ¡onla-
koa! ekarriko diodala.

(*Ramuntxo'ri*) ¡Goazen!

RAMUNTXO.—¡Goazen!

(*Biyak atzetik alde egiten dute. Oso
illuna dago; aize ta eudi-ots aundia. Pan-
txika guztiz tamal, ateari elduta, besteak
juan diran aldera begira gelditzen da.*)

EZKUTA - ZAPIA JEXTEN DA
LENENGO LAUKIAREN AMAIA

BIGARREN LAUKIA

Lasarte'ko enparantza. Ezkerrean eleiza, bere sarrera egokiarekin. Eskuian sagardotegi bat, atarian zurezko mai ta alkiak dituela. Gañerakoan etxe, zugatz eta baratzak. Erdian, aurre aldean exertoki bat. Egunez da.

LENENGO IRUDIA

I

Ramuntxo, Itxua, Arroxo ta Florentino. Sagardua eranaz, sagardotegiko aulkietan mai aurrean exeriak.

(Ezkuta-zapia igotzerakoan eleizako ezkillak entzuten da. Meza nagusia orduan txex amaitu da, ta gizon eta emakumeak eleizatik irtetzen dira. Geroxeago Udala irtetzen da, ta Txistulariak "Alkate soñua" joaz aurretik dituela, alde egiten dute. Azkenik, ikastetxe bateko nexkak beren lekumearekin eleizatik irteten eta atze alde-tik joaten dira. Ezkillak ixiltzen da.)

ITXUA.—Ai zak, i, Arroxo: gaur sagardoari bildurra diokala dirudik.

ARROXKO.—¿Sagardoari? Ez gaur eta ez beñere. Baña, Ramuntxo'ren joan bear orrekin gogabetua niok.

FLORENTINO.—I ta guztiak. ¡Nork esan emendik ordu batera gurekin izango ez dala!

ARROXKO.—Bigarko pelota jokuan, nere lagun ikusiko ez dedala.

ITXUA.—Eta gabian, gurekin Prantzi aldera joango ez dala.

FLORENTINO.—Makiña bat aldiz itzaz gogoratu bear diagu.

RAMUNTZO.—Bai ni ere zuetzaz.

ITXUA.—Gure etxean bazekiat, katuak ere negar egin bear duela.

RAMUNTZO.—Gai orretzaz naikoa itze-gin diagu, ta eran zagun orain bartko zorriona jaitzeko.

(Guztiak eraten dute.)

ITXUA (*Ramuntxo'ri*).—Ta, aizak i, Ramuntxo; joatekoan, ¿ire naitasun oyek nola uzten dituk? ¿Maritxo'k zer asmo dik?

RAMUNTZO.—¿Zer asmo nai dek iza-tea? Ni soldaruzkan naizen bitartean

itxoin; eta gero, amak uzten badio, nerekin ezkondu.

ARROXKO.—Nere amak naiko ez duela, jakiña zio, Jendeen berriketak burua berotu ziotek, eta ez aiz bere gogokoa. Bañan ez dek orrengatik larritu bear. Nere arrebak maite au, ni ere ire alde izango nak, eta zer edo zer egingo diagu.

ITXUA.—¡Mutillak! Bazenekite onen amari belarri ertzera egi batzuek esateko zer gogoia daukadan. Eztarri zuloan sartuak zeukazkiat, eta botatzen ez baditut ito bear diat. Bañan botako dizkiat, eta entzungo zizkiak. Ramuntxo'ri dion gogo txarra, gaizki arkitzen diat.

ARROXKO.—Nere ama orrelakoa, dek, eta orrelakoa izango dek. Bestela... ¿non arkitu nere arrebarentzat Ramuntxo bezelako senargairik?

ITXUA.—Ezta Petrikillo'ri berri bat aginduta ere. Ta gañera ¿berak alkarganako naitasunaz irrikitzen ez zioztik? ¡Utzi bada zorionekoak izan ditezen! Ara! Txinixtu zazute. Ire ama arkitzen badet, entzun biar zizkiak bereak eta bi.

FLORENTINO.—Lengoan ere, ori bera esan ukan.

ITXUA.—Lengoan eta beti. Eta ori, nik ikusten dedan une berean, nere begien aurrean jartzen dan bezin laster.

(Dolorex, Justina ta Ana Mari'rekin, elizako ateetan azaltzen da.)

FLORENTINO.—Ara bera, eleizako atean. Eldu akiyok. Orain dek garaya.

ITXUA.—Ala dek; baña, Justina ta Ana Mari'rekin zetorrek, eta nik berari bakarrik esan nai ziozkat... eta bakarrik arrapatuko diat... eta, nai badu, ta nai ez badu, entzun biarko zizkiak.

FLORENTINO.—Ni, bi lagunakin izketan geldituko nak, eta andre Dolorex, bakarrik utziko diat. ¿Nai al dek?

ITXUA.—¿Ez, gizona, ori ez! Ori, gauza bere onetik ateratzea izango ukek. Eta nik, bere kaus, ondo datorrenean nai diat.

ARROXKO (*Ramuntxo'ri*).—R a m u n t x o : ez adi larritu; ni, beti, ire alde izango nak.

RAMUNTZO.—Bazekiat.

ITXUA.—Esan nai ta ezin esan onek, barren guziea kixkaltzen jarri ziak. Apaltzen ote naizen, ekatzute sagardo pixka bat.

(Guztiak eraten dute.)

BIGARREN IRUDIA

II

Lengoak. *Eleizatik* Dolorex Detxarri, Justina ta Ana Mari.

DOLOREZ (*Bere lagunari*).—¿Ikusi al dezute, Pantxika orrek zer aundikeri itxura bere buruari eman nai dion? Meza guzian, ez digu bein bakarrik ere begiratu.

JUSTINA.—Ori esan.

IRURAK.—Uuum...!

ANA.—Eta, ikusten danez, ez du atera nai izan, gurekin ez arkitzeagatik.

DOLOREX.—Edo otoitz asko egin bearra duelako... ¡Bere obena ain aundia izan zan!

IRURAK.—Uuum...!

JUSTINA.—Madritarren baŕtekin izan omen zuen.

DOLOREX.—Bai, noski; ta ziotenez aberatsetakoa zan.

ANA.—Eta orretaz itzegiten asi geran ezkerro, ta sagardotegiko aurrean ikusten dedana ikusi ondoren... (*Lenbizi Ana'k eta urrena beste biyak Ramuntxo dagon*

tokira begiratzten dute) gauza bat esan nai nizuke.

DOLOREX.—Badakit zer esan nai didazun. Nolatan utzi diodan Maritxo, nere alabari, itzegiten eta igandetan dantzatzeten... emakume orren semearekin, oben ale zorigaiztoko orrekin.

ANA.—Bai, bada.

JUSTINA.—Maritxo bezelako nexka elizakoi batean ez degu ondo arkitzen.

DOLOREX.—Lasaiegia izan naiz, ezagutzen det; bañan, gure Jaungoiko onak lagundu dit orain, beti betiko ibillera lotsagarri oiek amaitzen, eta amaituko ditut.

ANA.—¿Egietan?

DOLOREX.—Bai. Esan didatenez, soldaruzkara dijua, ta Aprika'rako erori omen da.

JUSTINA.—Baña, biurtu liteke...

DOLOREX.—Bai. Iru urte barru; ta iru urtean ainbeste gauza gertatu litezke...

IRURAK.—Uuum...!

ANA.—¿Maritxo, nola ez da etorri?

DOLOREX.—Birjiñari eskeintzeko, lore batzuek antolatzen gelditu da. Baña, goazen emendik, emakume ori irten baño len.

Ikusi utsarekin, gorputz guzian otz-ikara sartzen zait.

JUSTINA.—Ongi diozu. Guazen.

IRURAK.—Uuummm...!

(*Eskuitik juaten dira.*)

IRUGARREN IRUDIA

III

Lengoak (*Dolorex, Ana Mari ta Justina ez besteak*)

ITXUA.—¿Ikusi al dezute? Ez zigutek begiratu ere.

RAMUNTXO.—Ni emen negolako.

ITXUA.—Bai, zera; neregatik izan dek. Orrek onezkero ezagutu dik, berari zerbait esan nayeian nabillena. Orrengatik joan dituk ain azkar.

FLORENTINO.—¿Ain azkar! Asti ederra egin ditek ba. Emen egon dituk beintzat Uuum...! Uuum...! (*Emakumeen antzera*) ¿Organua ziruditekan!

ITXUA.—¿Organua? Elizan dagona, nik kontrabandoan pasia.

FLORENTINO.—¿Organua're bai?

ITXUA.—Eta apaizik gabe gelditzen geran egunean, azkar beste bat ekarriko diat.

(Itxua ta Florentino atze aldera joaten dira.)

ARROXKO.—Ai zak, Ramuntxo: soldaruzkatik biurtzean lenbiziko partidua alkarrekin jokatu bear diagu. Biak lagun generala.

RAMUNT XO.—Asmo ori nikan neronek ere.

FLORENTINO *(Eskaira begiratuaz)*.—¿An datorren ura ez al da Maritxo?

ITXUA.—Bayetz esango nitek.

ARROXKO *(Atze aldetik eskaira begiratuaz)*.—Nere arreba dek, bai.

RAMUNT XO.—Asarretuko ez dala bane-ki, azken-agurra orain egingo niokek.

ARROXKO.—Zer asarretu biar dik; berak ere ez dik besterik naiko ta.

RAMUNT XO.—Bai; ta gero amak, nerekin bakarrik egon dala, jakiten badu?

ARROXKO.—Bakarrik ez, ni emen niok eta.

ITXUA.—Ta ni, ta au... Bañan irurak barrenera sartu biar diagu, gure bearrik ez ditek eta.

RAMUNTXO.—¿Bakarrik utzi bear al nazute?

FLORENTINO.—¿Izutuko ote aiz bada?

ITXUA.—Barrenen itxoingo diagu.

RAMUNTXO.—Baña...

ITXUA (*Atetik*).—Eta ez daukak lastertu biarrik. Egon nai dezuten guzia..
¡Emen dek!

(*Irurak sagardotegian sartzen dira.*)

LAUGARREN IRUDIA

IV

Ramuntxo ta Maritxo

(*Maritxo lore xorta bat eskuan duela eskuitik sartzen da. Eleiz aldera dijua. Ramuntxo bidera irteten zaio ta gelditu-azitzen du.*)

RAMUNTXO.—Maritxo...

MARITXO (*Alai ta maitekor*). — ¡Ramuntxo!

RAMUNTXXO.—¿Eleizara al zuaz?

MARITXXO.—Eleizara, Ama Birjiñari lore abek eskeintzera. (*Geldi aldia.*)

Azken-agurra egitera etorriko zintzaidala, banekien.

RAMUNTXXO.—Azken-agurra egitera, ta, bidez, zuri berri on bat ematera.

MARITXXO.—¿Zer berri da ori?

RAMUNTXXO.—Montevideo'ko nere osaba Inazio aberatsaren eskutitz bat atzo artu nuen.

MARITXXO (*Pozik*).—¿Eta zer dio?

RAMUNTXXO.—Bere landetan lan asko daukala, neurrigabeko soroen jabe dala, zaldi talde aundiak ditula... semerik ez duela, ta ni, neskatxa gipuzkoar bat emaztetzat dedala joango banitzaio, biak seme-alabatzat artuko ginduzkela... nere ama're gurekin etorriko litzake... ta orduan Ramuntxo zerbait izango litzake... ez oraingo kontrabandista txiroa, ez oraingo pelotari motela, zerbait geyago baizik... eta orduan zure amak ezkontzeko baime-na emango liguke. ¿Etzera iritzi orretakoa?

MARITXXO.—¡Amerika!... ¡Zer zoriona!... Itxaso zabala igaro, erridi urrutiko ayek ikusteko... (*Geroago ta sutsuago*)

Joango gera, zure osaba Inazio'rengana ; gero nere lengusuen etxera, Montevideo'ko mugan bertan dute landetxe bat eta...

RAMUNTXO.— ¡Juango gera !... ¡Juango gera ! esan dezu... ¿Nerekin ezkondu nai dezu beaz ?

MARITXO (*Tolesgabe*).— ¿Ez al zenekien ?

RAMUNTXO.— Bai, baña, zure aotik entzun nai nuen. Gaur bezin argi ez didazu beñere esan. (*Geldi aldia.*)

Adi zazu, Maritxo, ¿zure amak utziko ote digu ?

MARITXO (*Saminki*).— Nere amak... Beñere ez det kemenik izan zutzaz itzegiteko... bildurra diot... baña, orain, zu joandakoan ezerengatik ez dit ajolik... itzegingo diot ; eta, entzun zazu ondo, nai ez badu, zu zatozenez, dana dala, zuk nai dezuna egingo det. Gai onetan bakarrrik ez det amaren agindurik beteko.

RAMUNTXO.— Zer erantzuten dizun idatziko didazu beriala. ¿Ez da ala ?

MARITXO.— Idatziko dizut al dedan guzian.

(*Ramuntxo'k eskutik artuta Maritxo exer-tokira eramaten du. Biak exertzen dira.*)

RAMUNTXO.—Soldaruzka amaitu arte, ez dakit joan-etorri bat egiten utziko ote didaten... Ez det uste; ta, Maritxo, baze-neki... bildur naiz...

MARITXO.—¿Bildur?

RAMUNTXO.—Bai. Iru urterako joan biar det... Emendik urruti iru urte... zu ikusi gabe...

MARITXO.—¿Zeren bildur zera?

RAMUNTXO.—Neronek ere al dakit. Zure etxean ainbeste moja izaten da... Zeorrek ere, moja-etxera juan gabe egun gutxi uzten dituzu... Maritxo, egia esaidazu... ¿mojetarako zalerik al dezu?

MARITXO.—Beren abestiak poztutzen naute, beren aldare loretsuak, beren etxe txukunak, ez dakit zergatik, bañan atsegiñez betetzen naute. Alare, ez; ez dezu bildurrik izan bear... Zu galduko bazindut, orduan, onenean... ez, gaizki esan det; onenean ez, ziurki moja joango nitzake... Baña, bitartean, lasai egon zintezke.

RAMUNTXO.—Ori nai nuke.

MARITXO.—Gañera badakigu, alde egin bear au, nai ta naiezkoa dala.

RAMUNTXO.—¡Nai ta naiezkoa!.. Nerezat ez da nai ta naiezkorik, zure naita-

suna besterik... ta, zuk nai bazenu... au-
sartzen baziña...

MARITXO.—¿Zer esan nai dezu?

RAMUNTXO.—Erokeri b a t bururatu
zait... baña, erokeri ori ¡ain ederra da!

MARITXO.—¿Zer gero?

RAMUNTXO.—Zuk nai bazenu, bereala
biok Amerika'ra joan gintezke... Nik sol-
daruzkari iges egingo nioke... Itxuak la-
gunduko lidake...

MARITXO.—Bañan, orduan, betiko al-
dendu bearko genduke. Euskalerriko lur
maite onetara ezin geyago etorri gindez-
ke, gure naitasuna loratu dan toki zora-
garri abek ezin geyago ikusi genitzake...

RAMUNTXO.—Egia diozu; ezin liteke,
ez...

(Geldi aldia. Gero samintsuago).

Orduan, joango naiz. Maritxo,... agur.

(Biak altxatzen dira).

MARITXO.—¿Ordua al da?

RAMUNTXO.—Bai; bereala joan bear
det. *(Maiteki)* ¿Nitzaz asko oroituko ze-
ra?

MARITXO.—¡Oroituko naizen!... ¡Iru
urte!... Mendiko zugatzak iru aldiz lore-
tzen ikusi... Gure soro ugaritsuak iru ne-

gutan elurrez zurituak nabaitu... ¡Ta zu ikusi gabe!

RAMUNTXXO.—Nere biotza emen gelditzen zaizu.

MARITXXO.—Nerea zuk daramazu, eguzkiak kixkaltzen dituen lur legor ayetara.

RAMUNTXXO.—Juan bear onek, samintasun aundia nere barrenean sor-arazitzen du; bakarrik, biurtuko naizen itxaropenak poztasunezko errañu bat azaltzen dit.

MARITXXO.—¡Poztasun ori ain urruti dago... ta ain alde samintasuna!

RAMUNTXXO (*Biotz-ikarak abotsa iya itoan*).—Agur, Maritxo, agur. (*Eskutik elduaz*) Iru urtean ez zaitut geyago ikusiko.

MARITXXO.—Azken agurra emen ez. Atoz nerekin elizara, ta Ama Birjiñaren oñetan egingo degu.

RAMUNTXXO.—¿Besotik eltzen utziko didazu?

MARITXXO.—¿Zergatik ez? Iñork ez gaitu ikusten... Senar-emazte gayak bezela sartuko gera.

RAMUNTXXO.—Geran bezela.

(*Alkarri besoa emanta eleizara dijoaz. Dolorex ezkerretik azaltzen da*).

BOSTGARREN IRUDIA

V

Lengoak *eta* Dolorex. Gero Pantxika

DOLOREX.—(*Oso asarre*) ¡Banekien!
(*Sutsu*) ¡Maritxo!

(*Dolorex'en abotsa entzutean, biak izoztuak geldituko dira, ta pixkanaka besoak askatuko dituzte. Eleizako atean Pantxika agertzen da, ta, aurreratut gabe ta bestiak ikusi gabe, entzuten gelditzen da*).

¡Ramuntxo'rekin nora zinjoazen?

MARITXO.—Eleizara.

DOLOREX.—¡Eleizara!... Gizon baten besotik eleizara... ¡Eta zer gizon!

PANTXIKA (*Ezin egonik aurreratuz*).—Gizon ori bezin on eta zintzoa etxe done onetan besteren bat sartuko zan. Oberik, ez.

DOLOREX.—¡A! Ikusten dedanez, oyen zai zeunden, e? Ikustaldi au, zerorrek antolatua izango zan onenean. Zure aurrero-ko gertaerak jakinda, ez da arritzekoa, nolabaiteko ibillera abek zuri ondo iruditzea.

RAMUNTXXO.—Andre Dolorex, ori ez; nere amari...

PANTXIKA.—(*Ixil-araziaz*) I, ixilik!... Errua nerea bakarrik izan ukan, atsekabe garratz onek nerea bakarrik izan bear dik.

(*Dolorex'i oso apal*) Dolorex: entzun zaidazu. Bi aur gaxoen zorionaren tartera, zuk ezin garbitu litekela uste dezun zoritxar bat erantsitzea, ez da gauza zuzena; kristau bati dagokiona, gutxiago. Bota itzazu nere gain, nai dituzun mukerkeriak, sortu zenitzaken irau zorrotz eta latzenak; baña, utzi zayozute oyei.

DOLOREX.—(*Isekaz*) ¿Utzi, e? Bear bada, oyen arteko naitasunak gauza egokitizat dauzkazu. ¡Nork daki ezkonduko dirala ere ez ote dezun amets egin!

PANTXIKA.—¿Zergatik ez? Ia besteren batekin ezkontzen ote dezun... Saya zaittea.

DOLOREX.—(*Oso minberatuaz*) Bai, badakit bien artean oso zoratu didazute-la... Bañan, ez da egingo zuek nai deuzutenik. ¡Nere Maritxo kontrabandixta batekin, obendun baten semearekin ezkondu!... ¡Jaungoikoak bere beso kupitsuetan euki nazala!

(*Zakarri*) ¡Maritxo, goazen; goazen emendik!

(*Maritxo'ri eldu, ta gogorrean beregan-
na eramana*).

MARITXO.— ¡Agur, Ramuntxo!

RAMUNTXO.— Soldaruzkara amaitzen dedanean, nere itza betetzera etorriko n-
tzaizu.

DOLOREX.— (*Maritxo'ri bultzatuaz*)
Ire soldaruzkara amaitzean, ez dek Mari-
txo'rik arkituko.

(*Biak eskuitik joaten dira*).

SEIGARREN IRUDIA

VI

Ramuntxo ta Pantxika

PANTXIKA.—(*Lotsaturik eta erdi nega-
rrez*) ¡Au lotsa! Egun gorrian, enpa-
rantza batean, emetxar bat bezela moko-
ka!

RAMUNTXO.— (*Kupitsu*) Ama: nere
joan bearreko samiña, zure espa atseka-
beak garrazten didate.

PANTXIKA (*Bere burua indartu nairik*).—Egia diok, seme. Orain, beñere baño geiago nere indarren jabe egin bear diat.

(*Malko bat txukatu ta besoak luzaturik galdetzen dio*).

¿Eta zer? ¿Guzia eratu al dek?

RAMUNTXXO.—Eratu bearrik ain gutxi nuen.

PANTXIKA.—¿Eta bai al ua?

RAMUNTXXO.—Orain bertan. Zalburdia bide gurutzean artuko det. Araño, Itxua ta lagunak nerekin joango dira.

PANTXIKA.—Ni ere bai.

RAMUNTXXO.—Zu ez, ama, zu ez... bide luzea da, ta nekatuko ziñake. (*Iya negar egiñik*) Gañera, negar egingo det, eta ez nuke nai lagunak ikustea... Par egingo lidateke. Azken agurra obe degu emen egin. ¡Ama ekatzu azkeneko besarkada!

PANTXIKA (*Besarkatuaz*).—¡Nere biotzeko semea! (*Negar egiten du*).

(*Sagardotegiko atean Itxua, Arroxo eta Florentino agertzen dira. Eleizako atean Apaiz jauna*).

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII

Lengoak, Arroxo, Itxua, Florentino *eta* Apaiz jauna. *Geroxiago* Erriko Gizasembatzuek. *Azkenean* Maritxo.

ITXUA (*Ramuntxo ikustean*). — ¡Ongi estutu, Ramuntxo, ongi estutu!

(*Ramuntxo, lotsaturik, amagandik azkatzen da*).

Ez dek orrengatik lotsatu bear. Ama bat zer dan bazekiagu; ta i ama-zulo aize-la ere bai.

ARROXKO.—Ramuntxo: ordua diagu. Zalburdia laister bide gurutzera iritxikodek, eta Olaberria'k itxoiten ez duela badakik.

FLORENTINO.—Oni bai, itxoingo liokek, baña trena galduko likek.

RAMUNTZO.—Ongi diozute. Guazemak.

APAIZ J.—Ez; nik onetsi ta besarkatugabe, ez.

RAMUNTZO. — (*Apaiz jauna eleizako atetik jetxiko da, ta Ramuntxo berari joaten zaio*).—Apaiz jauna...

(*Apaiz jaunak onetsi ta besarkatzen du. Gero Ramuntxo'k bere amari esaten dio*).

Ama: etzera orain bakarrik gelditzen.

(*Apaiz jaunari*) Nik alde egin bitartean lagunduko balio.

APAIZ J.—Nere egitekoa ori dek.

(*Erriko gizaseme batzuek etorri ta besteakin biltzen dira*).

PANTXIKA.—Bañan, zergatik ez didate utzi bear, bide gurutzeraño joaten?

APAIZ J.—Ramuntxo'k ongi esan dizu, ¿Emen edo aruntzaxeago banatu zer esan nai du?

ARROXKO.—Goazen, mutillak. Berandu dala.

RAMUNT XO—Agur, apaiz jauna...Agur, ama.

PANTXIKA.—Jaungoikoak lenbailen nere besoetara biurtuko al au.

APAIZ J.—Agur, Ramuntxo.

ITXUA.—Zalburdian sartu baño len, ogei ta amar besarkada eman bear dizkiot: amabost zure izenean, eta beste amabost gurean... Ez, gaizki ari naiz: amabost zure izenean, bat gurean, eta beste amalabak Maritxo'renean... ¡A! Ta purrustada bat, andre Dolorex'en izenean.

RAMUNTXO.—Goazen.

Pantxika ta Apaiz jauna ez besteak eskuitik joango dira. Pantxika ta Apaiz jauna, besteak joan diran aldera begira ta noizean bein agur egiñaz gelditzen dira. Azkenean pixka batean geldirik egongo dira, ta berriro agur egingo dute. Ramuntxo ta lagunak ageri ez dirala orretan ezagutzen da. Musu-zapiarekin agur egitez amaitzen duenean Pantxika'k begietara eramaten du ta negarrez asten da).

APAIZ J.—Goazen, Pantxika, goazen. Zure buruari gogor egin bear diozu. Okerrenera jo ta ere, iru urte laster joaten dira.

PANTXIKA.—Poz eta alaitasunean bizi diranentzako, bai, laster igarotzen dira. ¡Bañan, zeñen luzeak diran atsekabeko ordu zorigaitzak!

APAIZ J.—Lasaitu zaite pixka bat, emakumea. Oroitu zaite, zure naigabe au Jaungoikoak bialtzen dizuna dala.

PANTXIKA.—Bai, jauna, bai. Bañan, nere semearen joatea, ez da nere naigaberik aundiena. Birjiña Maria'ri biotz biotzetik eskatu diot, eta badakit biur-tuko didala. Bañan, emen bildur naizena

gertatuko balitz, ez biurtzea obe izango litzake.

APAIZ J.—Zure betiko setara, bazuaz orain ere.

PANTXIKA.—Emen bertan, aistian, Dolorex ta ni ikusi bagindu...

APAIZ J.—Gauz oiek aztu egin bear dituzu.

PANTXIKA.—Ezin det.

APAIZ J.—Otoi egin zazu. Gogoaren goiberetan, ez da otoitza bezelako sendagairik.

PANTXIKA.—¿Otoi egin?... Ezin det, ezin. Dolorex Detxarri'k gorrotatzen nauela badakit; eta nik nere semeari zorigaitza ekarri diot. Gaur, gaur neretzat, egiazko zigorkada asten da.

(Maritxo eskuitik sartzen da, ta Pantxika ta Apaiz jaunak ikusi gabe alderatzen zaye).

APAIZ J.—Jaungoikoagan izazu itxaropena. Ia alegin txiki bat, eta otoi egiten dezun.

(Pantxika'k ezezko keñuak egiten ditu).

Joan danaz gogora zaita, eta otoitza zure ezpañetara azalduko da.

PANTXIKA.—Ezin ordea...

MARITXO (*Pantxika'rengana joan eta bere aurrean belaunikatuaz*).—¿Eta nerekin otoi egingo dezu? ¿Nerekin?... ¿Zure alaba bat bezela dan onekin?

PANTXIKA.—Bai... Zurekin, bai.

(*Besarkatzen dira*)

APAIZ J.—Irurak, beragaz, otoi egin dezagun.

EZKUTA - ZAPIA JEXTEN DA
LENENGO EGINTZAREN AMAIA

BIGARREN EGINTZA

IRUGARREN LAUKIA

Lenbiziko Egintzan lenengo laukiko ezkaratza. Lengo etxe-tresnaz gañera lastozko besalki bat. Arratsaldeko ordu biak dira. Atzeko atea oso itxia dago. Leyoa pixkat irikia, ta andik sartzen dan argi errañuak ezkaratza argitzen du.

LENENGO IRUDIA

I

Pantxika, gaxo, besalkian exerita. Pilar neskame gazte antzeko bat. Armario gañeko gauzak antolatzen ari da. Gauz aben artean edontzi ta sendagaidun ontziak izango dira. Gerorxeago Apaiz jauna.

PANTXIKA.—Pilar, ¿zer ordu da?

PILAR.—Bañan ¡Lezo'ko Kristo do-
nea! ez bedi kezka orretan egon. Beorri
larrituakin ez da ura lenago iritxiko.

PANTXIKA.—Egia diozu; bañan nere
nai au, ezin menperatu det. Oso nekatu-
rik begiak ixten ditut, eta ikusteko zalan-
tzak iriki-azitzen dizkit berriro. Semea
ikusi gabe iru urte egotea, zuk ez dakizu
ama batentzat zer dan.

PILAR.—Jakingo ez det bada. Iru urte
dira: urte bete iru bider, edo iru bider ur-
te bete.

PANTXIKA.—¡Betikotasun bat da!...
Baña, zer ordu dan esaidazu.

PILAR.—Aistiyan ordu biyak entzun
ditut.

PANTXIKA.—Amabiak inguruan Goros-
tiaga'ra iritxiko zan... an bazkaltzen
gelditu dala, iru bat ordu laurden bear-
ko zituen... gutxiago onenean. Bera're ni
ikusteko zaleturik egongo da ta...

PILAR.—Utzi bitza buru-auste oiek eta
lo kuluxka bat egin bear du. Beorri ez da-
go orrelako nasketan ibiltzeko. Gorostia-
ga'ra trena bere orduan iritxi dala ere,
zalburdiak bere astia biar du. Beaz, utzi
gañerakoak alde batera, ta lo egin beza.

PANTXIKA.—Lo... ¿Bañan, nola?

PILAR.—Begiak itxi, ta ezertan oldoztu gabe. Sayatu bedi.

PANTXIKA.—Sayatuko naiz.

(Geldi aldia, Pantxika'k, lo egin nairik, begiak ixten ditu. Asnasa larria dauka. Pilar'ek bere lanari jarraitzen dio. Laster Pantxika'k, asnasik ezin artu balu bezela antsi larri bat egiten du).

Pilar, leyoa iriki zazu geyago.

PILAR.—¿Iriki? ¿Bañan ez du ikusten argi geyago sartuko dala, ta lo egiten zalago izango duela?

PANTXIKA.—Iriki zazu... aizea bear det... ¿Itotzen naiz ta!

(Pilar'ek leyoa irikitzen du. Une berean Apaiz jauna leyo aurretik igarotzen da, ta ataritik neskameari esaten dio):

APAIZA J.—¿Zu! ¿Zu!.. Txeletan ¿e?

PILAR. — Ez, jauna; etxeakoandreak aizea bear omen du ta...

APAIZ J.—Bai; etxeakoandreak aizea bearko du, baña zuk, zure Juan bearko dezu noski. Tira, tira, atea iriki zaidazu.

(Pilar'ek atea irikitzen du).

PANTXIKA. — ¿Norekin itzegin dezu? ¿Apaiz jaunarekin?

PILAR.—Bai, andrea.

APAIZ J.. (Sartuaz)—Eta ona emen be-
ra.

PANTXIKA.—Ongi etorri.

APAIZ J.—¿Nola gera? ¿Nola?

PANTXIKA.—Ez dakit nola esan ere.
Beñere baño gaizkiago arkitzen naiz, eta
beñere baño obetoago.

APAIZ J..—Asmaketa ori somatzeko
Santa Rita'ri deitu bearako diogu; nik
beintzat ez diot tajurik ematen.

PILAR.—Bada nik, batere santa izan
gabe, badakit zer esan nai duen. Gaizki
dagola dio, ala dagolako; ta obetoago
dagola berriz, semea irixteko zalantzan ar-
kitzen dalako.

APAIZ J..—¡Egia! ¡Gure Ramuntxo
gaur datorkigu!

PILAR.—Eta etorrera orrekin oso natu-
tua dabil.

PANTXIKA.—¿Gaizki egiten al det?

APAIZ J..—Zuk uste dezun baño gaiz-
kiako. Lenbizi: ez dezu egin sendagillea-
ren agindua. Ez jeikitzeke esan zizun, eta
zu, jeiki egin zera.

PANTXIKA.—Ramuntxo'ri poz ori ema-
teagatik. Oyea edo jeikita arkitu, ez bai
da gauza berdiña.

APAIZ J.—¿Eta zer? Ramuntxo'k ondo ez zaudela badaki; ta ondo zaudelako itxura egite arren, egiaz gaizkiago jartzea, milla aldiz okerrago izango litzake. Ama bat iru urteren buruan semea ikusteko zalantzetan egotea, gauza jakiña da; baña zalantz orrek ez dezayola osasuna daukan baño geyago galdu-arazi. Gogora zaitea berriz, zure semeak zu gaxo ikusteko samintasunaz gañera, beste zorigaitz bat ere baduela. Badakizu norena... Maritxo'rena.

PANTXIKA.—Alderdi orretatik lasai xamar nago.

APAIZ J.—¿Nola?

PANTXIKA.—Ramuntxo'k guzia jakin du, ta orretzaz aztuko dala dio.

APAIZ J.—¿Aztu?

PANTXIKA.—Azkeneko eskutitzan, ala esaten zidan. Pilar:

PILAR.—Andria,...

PANTXIKA.—Emaidazu jaokun orretan dagon eskutitza.

PILAR.—¿Egunero, lau edo bost aldiz irakurtzen duen ori?.. Onezkero buruz ikasia izango du.

(Jaokundik eskutzita ateratzen du. Apaiz jauna exertzen da.)

PANTXIKA.—Egia diozu; nere oroime-
nean josia dago.

PILAR (*Eskutitza emanaz*).—Ona emen.

PANTXIKA.—Nador gudategitik idatzia
da, ta emen, azkenean ona zer dion:

(*Irakurriaz*) “Maritxo’ren eskutizik
artzen ez nituelako kezka, zerbaitengatik
ziran. Berriak oneraño iritxi dira; bai,
amatxo maitea, zuk gorde nai zenizkidan
berriak jakin ditut.

“Gaizki egin dezu. Ni bezin urruti ar-
kitzen danean bat, guzia jakitea, naiz ga-
rratza izan, ezer ez jakitea baño ohea da.

“Il zala, esan bazidaten, gaitz txikia-
goa egingo zidaten. Bere eskeñiak aztu,
bere itza jan, eta ezer esan gabe moja-etxe
batera iges egin... Ez nuen beñere orrela-
korik usteko.

“Baña, ama, neretzako Maritxo amai-
tu da. Beraganako naitasuna, nere bio-
tzetik betiko aldendu da.

“¿Ta orrengatik ez nitzala geyago erri-
ra joango uste zenuen? Ez, amatxo mai-
tia; ludi onetan zure naitasun bakarra
gelditzen zait, eta baimena izaten dedan
bezin laster, zure besoetara gogotsu juan-
go naiz.

“Bitartean, amatxo, ar zazu zure semearen laztan bero maitetsua. Ramuntxo.”

(Irakurtzen ari dan bitartean nekea ezagutzen zayo, ta azkenear zorabio batek ematen dio.)

APAIZ J.—Pantxika: gauzak ez dituzu orrela artu bear. Eskutitz onek poztu egin bear zinduke, ta ala ere...

PILAR (*Armario gañetik artu duen sendagai bat Apaiz jaunari emanaz*).—Sendagai au artu-azi bezayo. Txorabiorik izaten bazuen, ontatik emateko sendagilleak agindu du.

APAIZ J. (*Sendagaia zali batian Pantxika'ri eskeñiaz*).—Tira, Pantxika: ar zazu sendagai au. (*Pantxika'k artzen du.*) ¡Ajaja! Ederki... Orain, oyera.

PILAR.—Ori da. Ia lo pixka bat egiten duen. Ramuntxo bitartean etortzen bada, itxoin aziko diogu.

PANTXIKA.—Ez, ori ez, iñola're ez.

APAIZ J.—Ez, emakumia, ez. Etortzen danean, neronek esnatu-aziko zaitut.

(Apaiz jaunak eta Pilar'ek lagundurik Pantxika altxatzen da.)

Tira, eldu Pilar'i ta neri... ta, goazen geldi geldirik.

PANTXIKA (*Eskui aldera joanaz*). —
¿Zer ordu da?

PILAR.—Jo dute. ¿Bañan, erlojutik zintzilik egon bear al degu beti?

PANTXIKA.—Onezkero emen izan bear duen... ¿Zerbait gertatu ote zaio?

APAIZ J.—Ez, emakumea, ez. Bere garayan iritxiko da.

BIGARREN IRUDIA

II

Lengoak, Arroxo, Florentino. *Beriala Itxua ta Ramuntxo. Azkeneko au oñezko gudarien jantziarekin. Besoetan sarjento urre-galartsuak. Bular gañean bi gurutze. Surpeko txiki bat.*

(*Arroxko ta Florentino ataritik ojuka*)

ARROXKO.—¡Pantxika!.. ¡Pilar!..

FLORENTINO.—¡Emen dator!

PANTXIKA (*Ate ondoan arrituta gelditurik*).—¿E?.. ¿Zer diote?

(*Arroxko ta Florentino atzetik sartzen dira.*)

ARROXKO.—¡Or da!

FLORENTINO.—¡Emen dator!

PANTXIKA.—¿Egietan?

ARROXKO.—Emen da Ramuntxo.

FLORENTINO.—Itxua'rekin dator.

PANTXIKA.—¡Nere Ramuntxo, emen al da!

(*Apaiz jaunari*) Orra zergatik ez nuen nai oyeratu.

APAIZ J.—Bai, baña, orain, etzaiteala zure onetatik atera.

ARROXKO (*Atetik begira egon ondoren*).—¡Ona emen!

RAMUNTZO (*Itxuarekin sartuaz*).—¡A-matxo!

PANTXIKA.—¡Nere biotzeko semea!

(*Ama semeak besarkatzen dira. Geldi aldia. Besarkatuta luze xamar daude.*)

APAIZ J.—Tira, tira. Naikoa da, Pantxika. Besteak ere besarkatu bear degu.

PANTXIKA.—¡Nere Ramuntxo!

(*Pantxika'k ondo ez dagola ezagun duta besalkiari eltzen dio.*)

RAMUNTXO.—¡Ama!.. ¿Ez al dago ondo?

PANTXIKA—Ez da ezer.

(*Pilar, Ramuntxo ta Apaiz Jaunak besalkian etzaten dute.*)

RAMUNTXO.—¿Sendagilleari deituko al diogu?

PANTXIKA (*Bere burua osasundun egin nairik*).—Ezer ez dala esan diat. I ikusteko pozak pixken bat limurtu niok. Bañan orain, ongi niok... Oso ongi.

(*Bere semeari maitetsu begiratuaz*).

Apaiz jauna: beñere baño bikañago etorri da.

APAIZ J.—Oso gizon egiñik dator.

ITXUA—¿Ez dakizutela, bere jazkera orrekin eta bibote oyekin noren antza ematen diodan?

ARROXKO.—¿Napoleon'ena?

ITXUA.—Ago ixilik, kaikua. ¿Nun ikusi dek ik Napoleon biboteakin?

FLORENTINO.—¿Garibaldi?

ITXUA—Ez, gizona, ez. Apaiz jauna: ¿Beorri ez al zayo iruditzen, neri bezela, Zumalakarregi ber bera ematen duela?

APAIZ J.—Neri ez; baña ik esan ezker...

ITXUA.—Zumalakarregi ez bada, Espartero gutxienaz bada ba.

PANTXIKA.—Eta seme, esaidak: ¿Neke asko eraman bear izan al dituk?

RAMUNTXO.—Bai, ama; baña, guzitarra jartzen da.

FLORENTINO.—¿Eta moruak?

RAMUNTXO.—Gaiztoak dituk.

ARROXKO.—¿Eta emakumezkoak?

RAMUNTXO.—Gaiztoagoak oraindik.

ITXUA.—Emen bezela. Ia bestela, Maritxo'k orri...

APAIZ J.—¡Ixo! Gauz oyek ez dira emen gogoratu azi bear.

ITXUA.—Emen ixilduko naiz; bañan orren ama (*Arroxko'gatik*) ikusten dedanean, ederrak entzun bear zizkiak.

(*Florentino'k par egiten du.*) ¿Zeri par egiten diok?

FLORENTINO.—Iru urtean gauza bera esaten ari aiz ta...

APAIZ J.—Aski dala esan det.

ARROXKO.—Asti aundirik ez zio, eta guazemak pelotaldia tajutzer. Gero, onen billa etorriko gaituk.

PANTXIKA (*Arriturik*). — ¿Ramuntxo' ren billa?

FLORENTINO.—Noski. Etorri dala, erri guziak badaki, ta ¿zer esango luteke ez balitz agertuko pelota tokira?

ITXUA.—Ta ire jazkera orrekin berarekin jotatu bear dek, gurutze ta urregalartsu ta guzi. Ta ikusiko dezute nola guztiak esango duten: “Boina batekin, Zumalakarregi”.

APAIZ J.. (*Par irriz*).—Ala izan bearko dik bada.

PANTXIKA.—Bañan Ramuntxo, nekatua etorriko da, ta jokatzan ere aztuko zitzayon.

RAMUNTZO.—Ori ez, ama. Melilla'n iganderik geyenetan jokatzan nuen... Bañan, orain ez det zure aldamenetik une bat ere aldendu nai.

APAIZ.—Ederki esana.

ITXUA.—Ala bada... Erriak ongi-etorri bat egin nai zion... Guztiak ospatu nai zuten...

PANTXIKA.—Bai; ta zorion ori ez diot utzi-arazi bear. ¿Ez da ala?

ARROXKO.—Guk nai genuen...

PANTXIKA.—Ordu batzuek alde egitea zer ajola dit, geyago nigandik ez joateko etorri bazait.

RAMUNTXXO.—Bai, ama; beñere ez alde egiteko. (*Amari besoetatik elduaz*).

PANTXIKA.—Gañera ni... ez nago ondo, egia da, bañan, ain gaizki ere ez; eta alaitu dedilla bere lagun zarrakin.

ITXUA.—¡Betiko lagunakin!

ARROXKO - FLORENTINO.—¡Gurekin!

APAIZ J.—Orain ere, nai dezutena egingo dezute.

PANTXIKA.—Ta ederki egingo dute. Ramuntxo'k ez balu nai, naigabe bat izango nuke.

FLORENTINO (*Ramuntxo'ri*).—¿Entzun al dek?

RAMUNTXXO.—Ongi ziok: billa etorri zaitzte.

ITXUA.—¡Aufa! ¡Egiña ziok!

FLORENTINO.—¡Joango dek!

APAIZ J.—¡Ixo! Zuen zalapartak ez ziotek Pantxika'ri onik egingo; ta goazemazute emendik.

(*Ramuntxori besoak luzatuaz*).—Ramuntxo: gero arte.

RAMUNTXXO.—Apaiz jauna: badakit nere amari zer laguntza eman dion, eta gaitz egiten didanaz errex aztutzen banaiz ere, ongi egiten didanaz ez naiz beñere aztutzen.

APAIZ J.—Ago ixilik txorakeririk esan gabe, ta ator nere besoetara.

RAMUNTXO.—Biyotz osoarekin.

(Besarkatzen dira. Gero Ramuntxo'k apaizaren jazkiari begiratzen dio, ta berria dala ezagutzen du.)

Apaiz jauna, jazki ederra.

APAIZ J.—*(Sudurra beatzakin igurtziaz)*.—Ez dek txarra, ez.

ITXUA.—Nik kontrabandoan pasia, ta oñetakoak ere bai... ta len ere esan nuen, eta sudurra purrukatzen duen egunean, nik berri bat ekarriko diot.

(Guztiak par egiten dute.)

ARROXKO.—Ire billa etorriko gaituk.

ITXUA.—Gero arte.

RAMUNTXO.—Agur.

(Itxua, Arroxo, Florentino ta Apaiz jauna atzetik juaten dira.)

Pilar: zuaz sendagillearengana, ta esaiozu berarekin itzegin nai nukela, ta lenbailen etortzeko.

PILAR.—Ondo da.

(Atzetik joaten da.)

IRUGARREN IRUDIA

III

Pantxika *ta* Ramuntxo

(*Bere amaren oñetan belaunikatuaz.*)

RAMUNT XO.— ¡Ama !... ¡Amatxo !...
Egia esaidazu... ¿Gaizki al zaude?...
¿Noiztik zaude onela?

PANTXIKA.—Lau aste izango dek; ba-
ñan, ez adi izutu, seme.

RAMUNT XO.—Mazkaldua arkitzen zai-
tut... ¿Sendagilleak zer dio?

PANTXIKA. — ¿Sendagilleak?... utsa.
Bañan, ez bildurtu, Ramuntxo; jua-
dan egunetan baño obetoago nere burua
arkitzen diat.

RAMUNT XO (*Saminki altxiaz*).—Ez da-
kit zer dan guregandik zoriona aldendu-
tzen duana. ¡Besteak ain errez irixten du-
ten zorion ori!.., Florentino'k ezkondu
dala esan dit... aur bat ere omen du.

PANTXIKA.—Aur zoragarri bat.

RAMUNT XO.—Onera netorrela, Martin
Iribarren'en bi alabakin arkitu naiz. Ni
joan nitzanean nexka koxkor batzuek utzi

nituen; orain oso emakume egin dira, ta neskatxa ederrak daude. (*Oso minberaturik*) Etxetik irteten Maritxo'ren ama ere ikusi det.

PANTXIKA (*Batetan sumindurik*).—
¡A... ¡Emakume ori!.. ¡Ezin txinixtu li-
tekek bere txartasuna!

RAMUNTZO.—Eta guri digun gorrotoa.

PANTXIKA.—Ire gaitz guztiak, eta ne-
reak ere bai, emakume orrengandik ze-
torztik. Orrek, Maritxo'k nai ez arren, mo-
ja sartu arazi dik, urrutira eramantik...
ara, Naparru ingurura... Amezketan uste
diat... bañan ziur ez niok. Urte betean iru
moja-etxe aldatu-azi zizkiok eta...

Eta, Ramuntxo, esaidak: ¿ire eskuti-
tzan jartzen ukana, egia al da, edo ni ez
samintzearren jarri ukan? ¿Egietan Ma-
ritxo'tzaz aztu al aiz?

RAMUNTZO (*Erdi zalantzan*).—Oso az-
tu ez banaiz ere, aztutzeko alegiñak egiten
ditut; baña...

PANTXIKA.—¿Zer?

RAMUNTZO.—Onera iritxi naizenean
Arroxko'k gai onetaz itzegin dit.

PANTXIKA.—¿Bere anayak? ¿Eta zer
esan dik?

RAMUNTXO. — Maritxo'k etzuela nai. Nai ta nai ez eraman zutela. (*Erdi zalan-tzan*) Eta ni...

PANTXIKA.—¿Zer gero?

RAMUNTXO.—Arroxko'k, nere anai bat balitz bezela, biotzetik sortzen zitzaizkan esakuntza gartsuakin itzegin dit.

PANTXIKA.—Gizarajoa, ire alde izan dek beti.

RAMUNTXO.—Azkenean esan dit, Maritxo'k berriro ikusiko banindu... ¿Nabaitzen didazu, ama, zer esan nai dedan?

PANTXIKA (*Kurruka izan liteken poz-tasunezko keñada bat ezin gorderik*).

¿Ori esan dik?

RAMUNTXO.—¿Orrelakorik egitera jarriko banitz, ama, barkatuko zenidake?

PANTXIKA.—¿Barkatu?... Badakik ba-yetz. Bañan, Ramuntxo, etzakala orrelakorik egin, otoi egiten diat... Zorigaitza ire ta arren gain ekartzea izango uke.

(*Geldi aldia*) ¿Zergatik ez dek egiten eskutitzan esaten ukana? ¿Zergatik ez aizartzaz aztutzen?

RAMUNTXO.—¡Ain zalla da! Aztu nai nuke, alegiñak egiten ditut, nere buruari gogor egiten diot, eta ezin. ¡Ainbeste maiten nuen!... ¡Ainbeste!... Ura gabe, nere

bizia eriyotzaren otz ikaragarrian estalia arkitzen da. Bakarrik, Jaungoiko ontsuak, nere malko garratzak txukatzeke iraun-azitzen dizu ama maite orri. (*Ama laztanduaz*).

Alaz guztiz, neroni etzitzaidan beñere orrelako gauzik gogoratuko. Arroxo izan da. Nere burutik bota nai nituzken, eta geroago ta sendoago nere naiari lotzen zaizkan asmo oyek, anayak berak nere gogoan esnarazi ditu.

Arroxo'rekin itzegin baño len, ez nitzan ain zorigaitz arkitzen. Maritxo'tzaz gogoratzen nitzan, bai, egiya da; bañan urrun urruneko gauza batez bezela, ildako batengatik negar egiten degunen antzera.

Bañan, nere gogoia itxaropenaren asnas pozgarriarekin bete didaten ezkerero, nere buruari esaten diot: moja-etxe bat ez dala illobia, moja-jazki bat ez ere ilkuxa. Ta buru-estalki zuriaren barrenen iraungo dutela oraindik bi begi beltz eder maitagarriak, bi begi zoragarri ainbeste aldiz zoriona eskeñi zidatenak. Ainbeste...

Ama, txinixtu zaidazu: nereak ziran gogo, biotz eta naimenak orrelako aldaketa egiteko, gauza gogorak, ikaraga-

rriak gertatu bear izan dira. Bañan, ni orain, arrekin, aurrez-aurre ikusi al banedi, nere begiak bereetan josi al banitza... ¡Nork daki!

PANTXIKA.—Egia diok... ¡Nork zekik! Bañan, alaz guztiz, lengo naitasun sutsua esnatu-araziko bauke ere, ¿zer egin ezakek ondoren? Gizon baten ondotik moja-etxea utzi, ta iges egiten duen emakumea, Euskal-errian ezagutu ez dan zerbait dek. Eta gero: ¿non biziko ziñateke? Jende guziak zuen ondotik alde egingo litekek. Fedegabekotzaz gaizki ikusiak izango ziñeteke... ¿Nora juañ?... ¿Nora?...

RAMUNTXO (*Geldi aldi txiki baten ondoren, bildurri ta ixil antzean*).—Amerika'ra

PANTXIKA (*Samintsu*).—¡Amerika'ra! Beti Amerika'rako griña!

RAMUNTXO.—Etzaitte asarretu, ama. Ez det esan nai egitera nuala... Orain, beñere baño gutxiago. Badakizu, asmo bat besterik ez da. Asmo ori egingo det, edo ez. Bañan, nolanañ dala ere, orain ez, geroa-go...

PANTXIKA.—Nabaitzen diat... ni ilda-koan.

RAMUNTXO (*Kezkaturik*).—¡Ez ama!
¡Ori ez!

PANTXIKA.—Buruan ori dabilkikala ezagutzen diat. Gaur, nere onduan agon ezkerro obetoago egon arren, gaizki nagola bazekiat. Bañan ludi ontan nagola edo betikotasunean arkitzen naizela, asmo bat besterik ez diat izango: iri barkatu, i onetsi ta itzaz otoi egin zorionekoa izan adin.

RAMUNTXO.—Bai, amatxo; baña asmo ori nere besoetan bete bear dezu.

PANTXIKA.—Entzun nazak, seme..., Bakarrik gelditzen aizenean, nork itzaz begiratuko duen espa aundia ematen ziak. Ire aitatzaz ez diat beñere itzezin...

RAMUNTXO.—Ez det ezer jakin nai ere. (*Aldendu, ta entzungor egiñaz*).

PANTXIKA.—Gizon aberatsa ukan; lagundu lezaikek. Nik, nerekin ekarri indutan, emen, gure mendi tarte abetan, irekin euskaldun jator bat, gure aurrekoak izan ziran bezela euskaldun bene benetako bat egiteko. Ala ere, apaiz jaunak, nik emanda, gordeak zeuzkak ire aitaren argazki, izen ta ezaubidea, eskutitzak... Ni iltzen naizenean, emango dizkik...

RAMUNTXO (*Sutsu*).—Eta nik surtara botako ditut. Zuk, ni izatea nai zenuena

izan nai det. Zureetakoa, zure abendakoa, pelotaria, kontrabandixta; baña, zure aurrekoen antzera, bene benetako euskalduna. Ta ez det beñere zure izena besterik eramango. Beti deituko naiz: Ramuntxo, Pantxika'ren semea.

LAUGARREN IRUDIA

IV

Lengoak, Itxua, Arroxo *eta* Florentino.
Geroago Pilar.

ARROXKO (*Besteakin atzetik sartuaz*)—Egiña zio. Beti bezela, biak alkarrekin jokatuko diagu; ta beste alderditik, Lasarte bi anayak.

PANTXIKA. — ¿Erri guzia, Ramuntxo ikusi naye an egongo da, e?

ITXUA.—Gaur ez da geldituko arkakusorik ere, pelota-tokira joan gabe.

PILAR (*Atzetik sartuaz*).—Sendagilleak esan dit, lenago bear ez bada, illunabarean etorriko dala.

PANTXIKA.—Ederki. Ordurako pelotajokutik etorriko aiz.

RAMUNTZO.—¿Bañan, pelotan jokatzeko ori, egietan al da?

ARROXKO.—¿Zer uste ukan bada?

PANTXIKA.—Bai, bai; joatia, jokatzeko ta irabazteko nai diat.

ITXUA.—Joan baño len irabazia dauka.

RAMUNTZO.—Ama: orrela nai badezu...

PANTXIKA.—Bai, bai.

RAMUNTZO.—¿Baña, jantzi onekin jokatu bear al diat?

ARROXKO.—Agertu beintzat, bai.

ITXUA.—Ori dek. Eta gero an bertan aldatuko aiz.

FLORENTINO.—Geronek eramango dugu guzia.

PANTXIKA.—Armario orretan daude galtzak, gerrikoa, alkandora ta boina.

PILAR.—Ta xextua, an zintzilik.

ARROXKO.—Ekazkitzu.

(Pilar'ek armariotik jazkiak atera ta gizonai ematen dizkie).

RAMUNTZO *(Amarengana joan eta besarkatuaz)*.—Amatxo: beste besarkada bat.

PANTXIKA.—Gero arte, seme.

RAMUNTZO.—Bereala emen natzaizu.

FLORENTINO.—Guzia artu diagu.

ITXUA.—Goazemak bada.

RAMUNTZO (*Atzeko atetik*).—¡Amatxo!

(*Gizaseme guztiak atzetik juaten dira*)

EZKUTA-ZAPIA JEXTEN DA

IRUGARREN LAUKIAREN AMAIA

LAUGARREN LAUKIA

Aurreko ezkaratza bera. Iruditegian ez dago inor. Atzeko atea itxia. Illunabarra da. Leyotik argi izpi bat sartzen da. Gerroago ta illunago.

LENENGO IRUDIA

I

Apaiz Jauna ta On Bernardo

(Ezkuta-zapia igo ondoren Apaiz jauna ta On Bernardo eskuitik sartzen dira).

APAIZ J.—¿Beraz, zure iritzia da...?

ON BERNARDO.—Ramuntxo'ri bere bereala deitu bear zaiola, bere amaren azken asnasa jaso nai badu. Sendakintzak aldi onetan, apaizari bere txanda utzi besterik ezin egin lezake.

APAIZ J.—Onezkero pelota sayoa amaituko zuten, eta Ramuntzo'k bereala emen izan bear du... ¿Ta zuk ez al dezu ikusten itxaropen izpirik?

ON BERNARDO. — Egin liteken guzia alperrikako dala, txinixtu zenidake. Atzo esan nizunaz gogoratu zaite: gaitz onetan aldaketarik txikiena agertzen bada, alditxarra nai ta naiezkoa izango degu. Zorigaitzez asmatu egin det.

Ramuntxo zetorrela jakin zuen une beretik, gajo au bere onetatik atera zan, eta geroago ta bizituago, geroago ta sutsuago egon da.

APAIZ J.—Eta gauza arrigarria. Ez da oraindik bi ordu, obetoago zegola berak esaten zidala.

ON BERNARDO.—Gaitz abetan susper-aldi oyek askotan izan oi dira, bañan geyenetan txarrera jotzen dute. Susper-aldi aben ondoren, apal-aldia, erori-aldia etortzen da, ta bereala eriotza.

Biotza nekatua dauka, giza eroria, batere ez digu laguntzen... ta, ala, mirari batek bakarik... eta ori ez da neri dago-kidana, zuri izatekotan...

(*Ixil aldia*) Orra bada, beste gaxoai agertu bat egitera nijoakiote, ta gero biur-tuko naiz.

(Biak geldi geldirik atzeko ate aldera joaten dira. An gelditu, ta beste ixil aldia).

Gero arte.

APAIZ J.—Zuaz ondo.

(On Bernardo atzetik dioa. Apaiz jauna aurreratzen da).

¡Jaungoiko altsua! ¡Jaungoiko ona! Emakume gajo orri noiz deitzen diozu zure aldamenera. ¡Eta, i, Ramuntxo, atsekabea, etorrera ederra egin dek errira!

(Eskuiko atetik juaten da. Or uste izan bear da Pantxika'ren gela. Geldi aldi labur bat).

BIGARREN IRUDIA

II

Ramuntxo, Arroxo, Florentino, Itxua
ta Lasarte bi anayak

(Atarian Ramuntxo'ren aldeko gorak entzuten dira. Ojuak gero ta alderago. Ondoren Ramuntxo ta lagunak atzeko

*atetik sartzen dira. Ramuntxo, Arroxo-
ta Lasarte bi anayak pelotari jazkian. Pe-
lotarako txextuak berekin dakarzkite).*

ITXUA (*Lenengo sarturik*).— ¡Aurrera,
mutil! ¡Ori dek jokatzea, ori!

ARROXKO.— ¡Mutillak, ayek sakiak!

FLORENTINO.— ¡Eta ayek errestuak!

ARROXKO.— Ez dik uts bat egin.

LASARTE.— Politak giotzikan orri ira-
bazteko.

RAMUNTZO.— Ori ez; ni joan nitzane-
tik asko aurreratu dezute bi anayak.

LASARTE.— Utsa.

ITXUA (*Ramuntxo'ri*).— Aizak, i; ire-
baimenarekin argia pixtutzero niak, emen,
ez dek ezer ageri ta.

*(Armario gañean dagon argiontzia
pixtutzen du).*

ARROXKO.— ¡A zer poza artuko duen
ire amak! Esan bear diok, zer ongi-etorria
egin ditekan erritarrak.

FLORENTINO.— Eta zenbat txalo entzun
ditukan.

ITXUA.— Ama oyeratua izango dek.
Bart ire etorri bearrakin ez omen zikan
begirik itxi ta.

RAMUNTZO.—Orain ere, nere zalantzan egongo dek.

ARROXKO.—Zer egin dekan jakin nainko dik.

FLORENTINO.—Eta irabazi duela.

RAMUNTZO.—Esatera nijoakiok.

ITXUA.—Ua, bai, ua.

(Ramuntxo eskuiko atera dioa, ta alderatzekoan Pilar'en antsiak entzuten dira. Ramuntxo bat batetan gelditzen da, ta besteai begiratuaz galdetzen die):

RAMUNTZO.—¿Pilar al da negarrez dagoena?

ITXUA.—Ala zirudik...

(Besteak zoritxarra ulertuaz ixilik gelditzen dira).

RAMUNTZO (*Ikaratuta*).—¿Nere amari?... ¡Ama! ¡Amatxo!

(Ate aldera juaten da, bañan ara irixtean Apaiz jauna agertzen zaio, ta gelditu-azitzen du).

IRUGARREN IRUDIA

III

Lenguak *eta* Apaiz jauna

• APAIZ J. (*Atean agertuaz*).—Ramuntxo... Nere semea...

RAMUNT XO (*Zorigaitza nabaituaz*).—Apaiz jauna,... esan bezait... ¿Nere ama...?

APAIZ J.—Ire izena esanaz, bere ezañak betiko itxi dizkik.

(*Au entzutean, lagunak txapelak kendu, buruak makurtu, ta ixilik gelditzen dira*).

RAMUNT XO.—¡Il da!

APAIZ J.—Bai, ludi onetarako il da. Baña, an, gure egipen zuzenak saritzen diran goi eder artan, betiko biziko da.

RAMUNT XO (*Negarrez*). — ¡Ama!... ¡Amatxo nerea!...

(*Itxua ta bere lagunak Ramuntxo'gana alderatzen dira*).

ITXUA.—Ramuntxo,...

ARROXKO.—Nere anai Ramuntxo,...

RAMUNT XO.—Utzi nazazute.

(*Ama dagon ate aldera egiten du*).

APAIZ J.—¿Nora ua?

RAMUNTXO.—Ikusi nai det.

APAIZ J.—Baña...

RAMUNTXO.—Ez bedi larritu. Gizona naiz, sendo nago. Eta oraingo samintasun onek beste iñolako samintasunen antzik ez izan arren, nere buruaz nagusituko naiz. Ez dute nere karraxiak bere atsedean donearen ixiltasuna eragotziko. Nere ezpañak, lenago ainbeste aldiz esnatzeko bildurraz bere bekokira irixten ziran baño xamurrago musu emango diote... Gizona naiz...

APAIZ J.—(*Ateko sarrera erakutsiaz*)
Ua.

(*Ramuntxo juaten da*).

LAUGARREN IRUDIA

IV

Lengoak Ramuntxo ez bestiak. Au, azkenean, berriro sartzen da

(*Geldi-aldia, Apaiz jaunak otoi ixil bat egiten du. Besteak, buruak bera, oso ixilik daude*).

APAIZ J.—Orra, atsekabea, poztasunetik zeñen alde dagon. Aistiyan, Ramuntxo'ren etorrerakin, etxe au zorionez beteda. Eguzkiaren errañu guzia poztutzen duen bat bezela izan da... Ta, orain,... ikusten dezute, ama gajoari bizia ekarri zion errañu berak, eriotza ekarri dio.

ITXUA.— ¡Pantxika gajoa!

FLORENTINO.— ¡Eta Ramuntxo gizarajoa!

LASARTE.—Ez dik orain, erri ontan gelditu naiko.

ITXUA.—Ez noski. Laster dek Amerikan. Nola Euskalerrian ez zayon gelditzen maitasunik...

ARROXKO.—Ori... ikusiko diagu.

RAMUNTZO (*Begiak negarretan daukazkiela irteten da. Abotsa oso illuntsua*). Arroxko: oraintxe erri onetan etzaidak ezer ere gelditzen. Aistiyan, nere ama... nere ama aulki onetan exerita, eta ni bere oñetan, gure asmuak esan ziozkat, eta barkapena agindu zia. Nere amaren gorputz maitagarria lurak estaltzen duen bezin laster, ire bear nak. Moja etxe bat ez da illobia, moja-jazki bat ere ez ilkuxta.

APAIZ J.—¿Nola? ¿Ausartuko itzake...?

RAMUNTZO.—¿Aren billa juaten? Batare kezkiak gabe. Nere bizia poztutzen zuen guzitik ura bakarrik gelditzen da. Ta nere begiak bereetan josten ditudanean, nik jakingo det aren gogoan bizi dan oraindik Ramuntxo'ganako oroipen eta maitasuna.

EZKUTA-ZAPIA JEXTEN DA
BIGARREN EGINTZAREN AMAIA

IRUGARREN EGINTZA

BOSTGARREN LAUKIA

Eskuiean Ramuntxo'ren etxeko aurrea. Bere erdian ate bat. Atze guzia ixten duela orma bat. Orma onek, betik gora gizon baten neurria izango du. Onen aurrean arrizko malla antzeko bat, bai esertokitzat, baita ere bere gañetik beste alde ikusteko. Oso atzean mendiak eta abar. Ezkerrean orma batean sarrerako atea. Gañerakoan zugatzak eta abar. Egunez da.

LENENGO IRUDIA

I

Itxua, bereala Ramuntxo

Ezkuta-zapia igotzen danean, Itxua zaoro (látigo) bat bizkarretik zintzilik

duela, ezkerreko atletik sartzen da. Eskuiko atea itxia egongo da, bertan kaskateko txiki batzuek ematen ditu, ta ixil antzean deitzen du.

ITXUA.—Ramuntxo... Ramuntxo...

(Eskuiko atea iriki ta Ramuntxo agertzen da).

RAMUNTZO (*Jakin nairik*). — ¡A!
¡Itxua! ¿Zertan gera?

ITXUA.—Egiña zio. Zaldia, gurdia ta gidaria (*bere burua erakutsiaz*) gertu zioztik.

RAMUNTZO (*Poz pozik*). — Azkenean ere artaratu aiz.

ITXUA.—Ez berialakoan. ¡Bañan, Ramuntxo' gatik zer ez nitek nik egingo!

RAMUNTZO.—Eskerrik asko.

ITXUA.—Bañan, nere buruarekin gorabera aundiak ibilli biar izan dizkiat. Itxua, nere buruari esaten niokan, i kontrabandixta aiz; bai, ta zer, erantzuten nikan, kontrabandixta bat ez dek lapurra. Bai, baña, Itxua, entzun zak ondo: ik, orain arte, guzitatik pasa dek, jateko, erateko, jatzeko, apainketarako, guzitatik; guzitatik; bañan ik oraindak ez dek mojik kontrabandoan pasa. To, ala dek. Iii...

igarriko diyok. Ramuntxo gizarajuak Maritxo beste ametsik ez dik. Laguntza eskatzen ziak. ¿Nola ukatu? Tira; orrela egon gabe, zirt edo zart egin zak. ¿Bai edo ez? Ara: bat, bi, iru,... ¡Egiña zio! ¡Ramuntxo'nak! Ik nai badek, moja-etxetik aterako diat, ez Maritxo bakarrik, baita tximiniko kia ere.

RAMUNT XO (*Besarkatuaz*).—Itxua, nere lagun zarra, ikusten diat ez dekala beñere uzten alaitasuna.

ITXUA. — Ezta utziko're. Alaitasuna galtzen duen egunean, Itxua'renak egin dik. Alaitasuna biar biarrekoa diagu, aizea bezela, argia bezela, sagardoa bezela. Ni ez nak entierro batera joaten, eta al banu, nerera ere ez nindukek joango. Malko bat ikusten badet, txukatzen lagunduko diat, bañan atsekabetik alde, alde. Itz gutxitan esateko, alaitasuna dek nere aita, nere ama, nere anaya,... nere izate guzia.

RAMUNT XO.— ¡Zorionekoa aiz!

ITXUA.— ¡Ta, i ez! Ordu gutxi barru, ainbeste maite dekan emakumea ire besoetan eukiko dek; etzi Santander'en itxasontzian zerate; andik Buenos Aires'etara... Ta bidean ezkondu nai badezute're,

apaiza ontzian izango dek noski. Orra gauza bat nik egingo ez nukena. Legorrian ezkontzeak buruko txorabioa ematen ziak, eta ¡ja, itxasoan!

RAMUNTXO.—¿Bañan uste al dek, nerekin etorri naiko duela?

ITXUA.—Usteko ez diat ba. Asko aldatu bearko zikan bestela.

RAMUNTXO (*Buru-auste aundiarekin*).—Etzekiat bada. Garaya alderatzen dijoan bezela, itxaropena aldendu egiten zaidak... ¡Berriro ikusi! ¡Nereganatu! ¡Eta betiko nerea izan!... Egia izateko zorion aundiegia dek. Bañan ez dik nerekin etorri naiko... ta orduan neretzako guzia amaitua zio.

ITXUA.—Mutil, ez aiyela orren kirtena izan. Gezurra zirudik, orrenbeste txorakerirentzat, ire buruan tokia izatea. Ez nazakela bada neri orrelakorik aitatu, ta bear danaz itzegin zagun. ¿Orain daramakan asmo onetzaz, ez al dek ñorekin itzegin?

RAMUNTXO.—Arroxko'rekin eta irekin bakarrik.

ITXUA.—Ederki egin dek. ¿Eta igarobideak?

RAMUNTXO.—Neronekin zeuzkat, eta baita ere ontziko txartelak. Gauza bat bakarra ez zeukat oraindik...

ITXUA.—¿Zer gero?

RAMUNTXO.—Nere Maritxo.

ITXUA.—Ori ere laster izango dek bada. ¿Itxuak asmo batean begia jartzen duenean, utsegiten ikusi al dek beñere? Oraingoan ere ez dik utsegingo bada. Moja-etxe bat... ¡bo! Moja gajo batzuek... ¡bo! ¡Ez al dizkitek karabineruak añako biboterik izango! Ta, izanda ere ¿zer? Oituak giotzik. Ta... garaya aurrera ziak eta zaldiak kakotutzero niak. ¿Arroxko onera etortzeko gelditu al da?

RAMUNTXO.—Ala esan zidak.

ITXUA.—Baztar abei azken agurra egin akitok bada, ordu-laurden bat barru emen nak nere zalburdiarekin ta. ¡Nere zalburdian! ¡Nere zaldiakin! ¡Eta ni gidari naizela! Usteko ditek aizela... ¿Nor esango det nik?... zera... Madan Panpodur.

RAMUNTXO.—Agur, Itxua.

(Itxua ezkerretik joaten da.)

BIGARREN IRUDIA

II

Ramuntxo, gero Florentino

RAMUNTXO (*Bakarrik gelditzen danean, zigarro bat atera ta puxtuko du, bañan lenengo txupaldian botatzen du.*)

Ezpa au... zalantz onek, nere barrena sutan gal gal jartzen dit... ¡Maritxo nitzaz aztu bada!... Nere naitasuna baño bere moja-aupidea nayago badu... Egia da, Itxuak dion bezela, indarrez neretu nezakela... Baña, nik nai dedana ez da bere gorputza, bere biotza baizik... eta bere biotzak... ¿len nai zuena, naiko ote du orain?

(*Bakarizketa asten danean, barrenen Euskal-erriko mendi-gurdien karranka entzungo da. Karranka ori geroago ta alde-rago entzungo da. Gerøxeago, ormaren atzetik, atzeko aldean, eskuitik ezkerretera dijoala erratz (retama) pilla bat agertuko da. Onek, Florentino'k daraman gurdia-ren gaña iduritu bear du. Gañera, beyak gidatzeko Florentino'k daraman akullua*

ikusiko da. Erdira irixtean gurdia gelditu, ta Florentino orma gañetik agertuko da.)

FLORENTINO (*Pozez*).— ¡Ramuntxo!

RAMUNTZO.— ¡Florentino!... Ator.

FLORENTINO.—Ezin nezakek. Gurdia-kin niak; bei berriak dizkiat, eta ezin bakarrik utzi nezazkikek.

RAMUNTZO.—Ire uste gabeko agerketak asko poztu niok; orrela azken agurra egiteko aldia eman didak.

FLORENTINO.—¿Bañan, egitan, ba al ua?

RAMUNTZO (*Samintsu*).—Bai, Florentino.

FLORENTINO.—¿Ameriketara?

RAMUNTZO.—Ameriketara.

FLORENTINO.—¿Aberastera?

RAMUNTZO.—Ori... Jainkoak zekik.

FLORENTINO.—Euskal-erritik orrenbeste jende joaten danean, diru asko izan bear dik an. Mutillak, ori joan bolada izaten dek emen... bañan ni ez niotek arrapatuko.

RAMUNTZO.—¿Ik ez dek, aizen baño geyago izateko zalerik, e?

FLORENTINO.—¿Naizen baño geyago? ¿Zertarako? Igo adi, ta begira zak.

(Ramuntxo orma gañera azaltzen da.)

Begira akiok zer bei parea; probintzian ez ziok oberik. Ukulluan beste bi bazeuzkat... banen banakuak. Gure etxea, ez diat esango jauregi bat dala; bañan gurea dek beintzat, eta besteren jauregia baño, geronen etxea nayago diagu.

Mutil koxkor, musu gorri bat, bazeuzkat, osasuntsuagua dek, indar batzuek bazeuzkak... laster aitari burrukan egingo ziok.

Nere emazteak berriz, egunetik egunera maiteago niok... ¿Zer geyago eskatuko diat? Ez, Ramuntxo, ez; an diru asko irabaziko dek, balitekek; bañan, gu jayo geran lur berean, gure etxe jatorrean, gutarren artean arkitzen degun zoriona, ez dek diruakin erosten dana.

RAMUNTXO.—Ez noski.

FLORENTINO.—Toki urruti ayek, gureen aldean askoz ederragoak izango dituk, ez diat ezetz esango...

RAMUNTXO.—Esan zak bada, Florentino, ezetz esan zak. Ludian dan tokirik ederrena gure Euskal-erria dek. Eta gu biyon artean i aiz zoriontsuena; ik ondoena oldozten dek.

FLORENTINO.—Orrela uste badek, ¿zer-gatik ua bada?

RAMUNTXXO.—Ni... Florentino... ludian bakarrik nagolako. I, nai izan dekan emakumearekin ezkondu aiz, eta berarekin etxea zorionaz bete dek; nik berriz... ¿aztu al zaizkik nere gertaera garratzak?

FLORENTINO.—Izan ere. Egia dek... Ez nikan ori esan biar... Barka nazak, Ramuntxo,... asto bat nak... ez nikan ez... barka nazak.

(Geldi aldi bat. Gero, izketa aldatu nai balu bezela.)

Eta, ¿noiz ua?

RAMUNTXXO. — Gaur bertan, emendik pixka batera... Gaur gabean ez diat lo egingo nere jayoterrian.

FLORENTINO.—Bada, Ramuntxo, ondo ibilli. Ta egunen batean erri onetara biur-tzen baaiz, nere etxea irea dala badakit; eta txinixtu nazak, nere eskuan balego, kendu ditekan zoriona pozik emango nik-kek.

RAMUNTXXO (*Esku emanaz*).—Eskerrik asko, Florentino.

FLORENTINO.—Eta, badakik, e?... ondo ibilli... lagunaz ez aztu... ta zartzaroan

bada ere, oraindik berriro alkar ikusiko diagu... Besteak etortzen dituk beintzat eta... í're etorriko aiz...

RAMUNTZO.—¿Nork zekik?... Denborarekin... Onenean...

FLORENTINO (*Kupitsu besarkatuaz*).—Agur, Ramuntxo.

RAMUNTZO.—Agur, Florentino.

(*Besarkada luze bat alkarri ematen diote. Azkenean Florentino'k begiak garbitu, ta orma atzean jeisten da. Berriro gurdiaren karranka ots entzuten da, ta gurdia ezker aldera dijoa oso ayendu arte. Ramuntxo'k orma gañetik begiratzen dio. Karranka geroago ta urrutiago entzuten da, oso itzali arte.*)

IRUGARREN IRUDIA

III

Ramuntxo ta Arroxo

RAMUNTZO (*Malkoak txukatu ondoren ormatik jeisten da*).—Maritxo'k ondo artuko banindu, ni ere zoriontsu izango nitzake.

ARROXKO (*Jantzi zorro bat galtzarbean duela, ezkerretik sartzen da*).—Nai dekanean joango gaituk. Uste bañon beranduxeago netorrek, amak etxetik alde egiteko zai egon nakelako... badakik, abek arrapatzeko. (*Jazki-zorroa erakutsiaz.*)

RAMUNTXO.—¿Zer dek ori?

ARROXKO.—Beste edozeinentzat emakume jazki batzuek. Iretzat... zoriona.

RAMUNTXO.—¿Zoriona?

ARROXKO.—Bai bada. ¿Zer uste ukan, nere arreba, monja jantzian Amerika'ra joango zala?

RAMUNTXO (*Pozturik*).—¿Bere jantziak!

ARROXKO.—¿Iri etzitzarikan batere gogoratuko?

RAMUNTXO.—Ez ta jantzirik bazan ere.

ARROXKO.—Ez dituk noski azkeneko erakoak izango, baña arrapatu ditudan egokienak abetxek dituk. Begira akiok. (*Gorputz bat erakutsiaz.*)

RAMUNTXO.—¿A zer oroipenak! Maritxo'k gorputz au zeukakan jantzia, orain iru urte, soldaruzkara joateakoan, azken agurra egin nionean. ¿Orduan, alkarganako zer naitasun bizia gure biotzetan!

¡Ordutik, zer aldaketa minkorrak! ¡Beso onetatik elduta, eleizako ateetan egon nindukan azkenengo aldiz...!

ARROXKO.—Bada, berriz ere, beso onetatik elduta egongo aiz... baña Maritxo' ren besoa barrenen sartuta.

RAMUNTXO.—¿Beraz, Maritxo'k naiko duela uste dek, e?

ARROXKO.—Ez diat bada usteko. Nik bazekiat nola erdi arrastaka eramán zuten; jakin diat ezin oitu dala, gabetan negarrez egoten dala... Ta ori guzia, jakíña ziók, i maite auelako dek.

RAMUNTXO (*Pozez zoratzen*).—¿Egietan?

ARROXKO.—Bestela, ¿uste al dek laguntzen diaten bezela lagunduko nikala? Baña, bazekiat i ikusten auenean, mojan-etxe ta mojak utzita, irekin joango dala.

RAMUNTXO (*Oso zoraturik*).—Bai, bai, ongi diok. Ala izan bear dik. Nere kezak gezurrezkoak dituk. Egia irea dek... Itxua ori ere etzetorrek berealakoan.

LAUGARREN IRUDIA

IV

Lengoak eta Itxua orma atzetik

(*Alderatzen dijoan zalburdi baten zintzarri otsa enzuten da.*)

ARROXKO.—Emen dek bera. Zintzarri oyekek bere zaldienak dituk.

RAMUNTZO (*Asnas pozgarriarekin*).—Azkenean ere!

(*Etxean sartzen da. Bereala giltza batekin atera, etxeko atea itxi, ta giltza gordetzen du.*)

¡Agur nere oroipenetako txokoaren orma zar maitagarriak! ¡Bigarren aldiz zuengandik aldentzen naiz, bañan, oraingoan, zuek geyago ez ikusteko onenean!

ITXUA (*Orma gañetik azalduaz*).—Nai dezutenean etorri, emen niok ni.

(*Arroxko'ri*) Aizak i, Arroxko: ¿ez dakikala, or bidean, bakar bakarrik, aspaldian nai nuen bezela, nor arkitu dedan?

ARROXKO.—Nere ama.

ITXUA.—Ber bera.

ARROXKO. — Eta bazekiat, aspaldian esan nairik aukazkikan petralkeri guziak, batean botako izkala.

ITXUA.—Ez bada... orra nola gauzak izaten diran. Bakarrik zijoalako, ez nak ezer esaten ausartu. Etzak ondo iruditu. Beste bi edo iru lagunekin arkitu izan banu, entzun bearko zizkidan bada.

ARROXKO.—¿Onezkero, zertarako? Ordu gutxi barru, Ramuntxo ta nere arreba zoriontsuak izango dituk.

ITXUA.—Ala dek. Goazemak, Ramuntxo.

ARROXKO.—Goazemak, eta ez kezketan egon. Nere arreba ire zai dagola gogoratu adi.

RAMUNTXO.—Egia diok. Maritxo nere zai zio.

ITXUA.—Ni're bai, ire zai niok; eta zaldiak ere bai.

RAMUNTXO.—Goazemak bada.

(Ramuntxo ta Arroxo ezkerretik iriteten dira.)

ITXUA.—¿Ba al gera? Aide bada. ¡Yiip! ¡Karabinero! ¡Yiip!...

(Zigorraren zartada entzuten da, gero zaldien zintzarri otsa urrutiratzen dijoala ta... geldi geldirik...)

EZKUTA-ZAPIA JEXTEN DA
BOSTGARREN LAUKIAREN AMAIA

SEIGARREN LAUKIA

Amezketako moja etxeko itz-gela. Atzean sarrerako ate aundia. Eskuiean, lenengo ate bat, gero leyoa. Leyoetan lurrezko pegar aundi bat. Ezkerrean, maibatzen gañean, Birjiñaren irudi aundi bat, aldamenetan lorontziak lorez beteak dituela. Iruditegian zabalduak lastozko alkiak.

LENENGO IRUDIA

I

*Lekaidaba ta Sor Balentina, Asieran
Maritxo ta beste Moja batzuek*

Illunabarra da. Ezkuta-zapia altxatzerakoan ez dago inor iruditegian. Gero moja bat atzean ezkerretik eskuira igarotzen da. Bereala atzeko ezkerrean Maritxo moja jantzian ta lore zuriko xorta bat eskuetan duela azaltzen da, ta beste moja bat eskuiean. Alkarri agur egin ondoren, Maritxo aurrean eskuiko atetik joaten da ta:

beste moja atzeko ezkerretik. Maritxo'k alde egindakoan Lekaidaba ta Sor Balentina alkarrekin izketan baletoz bezela atzeko ezkerretik sartzen dira.

SOR BALENTINA.—...orra bada, emen egon dan lenengo illabeteetan, bere goiak ain bearrekoa duen pake donea, gure artean arkitu zuela zirudien.

LEKAIDABA.—Nik ez det beñere orrelakorik uste izan. Neri beti kezkatu ta atsege iduritu zait... eta, Sor Balentina, siñetsi nazazu, gure Maria Anjelika gaxoak badu oraindik ludian espatzen duen zerbait... Orren moja-izatea, zorigaitzez, ez dakit ez ote dan gogorrean egiña ere...
¡Sor Mari Anjelika gaxoa!

SOR BALENTINA.—Diotenez, ezkontzeko asmoetan ibilli bear zuen, Lasarte'ko gazte batekin, pelotari bikaña, Aprika'ra joan zana... ¿nola deitzen zioten bada?

LEKAIDABA.—Ramuntxo.

SOR BALENTINA.—Alaxen da, Ramuntxo zan.

LEKAIDABA. — Orain Ramuntxo bere errira biurtu omen da, ta Sor Maria Anjelika'k jakin duen ezkerre, kardaba zerbait dabilkiela iduritzen zait... Bañan, goazena

gu gure egitekora. Lorontzi abei ura aldatu bear diegu. ¿Ur garbia ekarri al dezuz?

SOR BALENTINA (*Pegarra erakutsiaz*).

—Pegar orretan daukazu, ama.

LEKAIDABA.—Ederki.

(*Mai gañetik lorontzi batzuek artu, leyoa iriki ta andik ustutzen ditu. Une onetan, zalburdi baten txintzarri otsa urrutira enzuten da.*)

Zalburdien bat izan bear du.

SOR BALENTINA.—Bai, Ama; ta etxe done onetara dator... ¿Nor izan liteke?

(*Zintzarri otsa alderago.*)

LEKAIDABA.—Gaxo dagonen batentzat sendagai billa etorriko dira noski. Sor Balentina, guk gure lanari jarrai dezaiogun. Lorontzi au ar zaidazu.

(*Lorontzi bat aurreratzen dio, baña Sor Balentina'k ez dio begiratzen ere.*)

SOR BALENTINA.—Zaldi zintzarri oiek ez dira ezagunak... ez dute izan bear inguru abetakoak...

LEKAIDABA.—Baña, Sor Balentina,...

SOR BALENTINA.—Ez, ama, ez; inguru abetako zintzarri otsak ongi ezagutzen ditut.

LEKAIDABA.—Baña, Jaungoikoaren ize-nean, lorontzi oni eldu zaiozu.

SOR BALENTINA.—¡A! Azketsi, Ama.

(Zintzarri otsa, moja etxeko ateetan zalburdia gelditu balitz bezela ixiltzen da. Sor Balentina, lorontzia artu arren, len bezela zalantzetan dago.)

Ara: gelditu da.

LEKAIDABA.—¿Zer gero?

SOR BALENTINA.—Zalburdia... Ordu abetan ¿nor izan liteke?... Inguru abetakoak ez dirala ziur nago.

(Sor Balentina'k bere zalantzakin ez du egiten gauza zuzenik. Lorontzi okerrekoak ematen eta abar.)

LEKAIDABA.—¿Sor Balentina, non daukazu burua?

SOR BALENTINA.—Atarian, Ama.

LEKAIDABA.—Ez da ori moja bati dagokiona.

SOR BALENTINA.—Nor dan jakin nayah...

LEKAIDABA. — Geyegizko jakin naya oben bidea da.

SOR BALENTINA.—Azketsi, Ama.

(Biak beren lanari jarraitzen diote, ta une onetan moja-etxeko zintzarriaren otsa entzuten da. Bi mojak arriturik gelditzen dira.)

¡Ateko zintzarria!

LEKAIDABA.—¿Zer bear ote dute?

SOR BALENTINA.—Inguru abetakoak ez dirala, badakit.

LEKAIDABA.—Ar zazu giltza, ta nor dan ikusi zazu.

(Giltza Sor Balentina'ri ematen dio, ondoren Sor Balentina atzeko atera joan, ta an gelditzen da.)

SOR BALENTINA.—¿Bañan, garai ontan, nor izan liteke?

LEKAIDABA.—Zuaz, eta jakingo dezu.

SOR BALENTINA.—Ezin somatu det...

(Sor Balentina atzeko ezkeratik joaten da.)

LEKAIDABA.—Onera norbait badator ere, gela pixka bat txukundu bearko det. Aldareko apainketak geroxeago tajutuko al ditugu. Erredura aundia izango nuke,

gure Ama maitearen jai ospetsuan, bere aldarea loretegi zoragarri bat egin gabe ikusiko banu.

SOR BALENTINA (*Berriro agertuaz*).—Ama,... Mutil gazte bat da; bere arreba moja ikusi nai omen du.

LEKAIDABA.—¿Eta arreba moja ori, nor da?

SOR BALENTINA.—¡A! Ez naiz galde-tzea gogoratu. Azketsi, Ama.

LEKAIDABA.—Dana dala, datorrela.

SOR BALENTINA.—Nik esan bezela, ez da inguru abetakoa...

LEKAIDABA.—Datorrela esan det.

SOR BALENTINA.—Bereala, Ama. (*Joa-ten da.*)

LEKAIDABA.—Sor Balentina'k bezela, nik ere nere buruari galdeera bera egin bearko diot: ¿nor izan liteke? Gure moja baten anaya... Anayak dituzten mojak bat baño geyago badira. ¿Nor izan liteke?

(*Illuntzen dijoa. Gizon oin otsa entzuten da.*)

Dana dala, emen da bada.

(*Sor Balentina aurretik dala Arroxo-atean agertzen da.*)

BIGARREN IRUDIA

II

Lengoak, Arroxo, Ramuntxo ta Maritxo.

ARROXKO.—Arratsaldeon.

LEKAIDABA.—Baita zuri ere.

ARROXKO.—Arrebarekin egon nai nuke... Ikusi al baledi...

(Arroxo pixka bat aurreratzen da. Ramuntxo atzean illunpetan gelditzen da.)

LEKAIDABA (*Baretsu*).—¿Nor da ikusi nai dezuna? ¿Nor da zure arreba?

ARROXKO.—Nere arreba, Maritxo da; zuek emen Maria Anjelika deitzen diozuten.

MARITXO.—¡A!

(Maritxo'k eskuiko gelatik Arroxo' ren itzak entzun ditu, ta oju bat egin ondoren, eta eskuetan lore zuri batzuek di-tuela agertzen da.)

LEKAIDABA.—¡A! Sor Maria Anjelika, zure anaya degu emen... Ongi etorria izan zaite. Aurrera, aurrera, adiskide onak,... aurrera biak, atze ortan beste bat dagola ikusten det eta...

(Biak sartzen dira. Maritxo'k Ramuntxo ikusten du, ta larriarekin loreak eskuetatik iges egiten diote.)

(Sor Balentina'ri)

Sor Balentina, pendarra eraman zazu emendik.

(Sor Balentina pedarrarekin atzetik joaten da. Lekaidabak alkiak aurreratzen dizkie.)

Exeri zaitezte. Guztiak exeri gaitezen.

(Lekaidaba ta Arroxo exertzen dira. Ramuntxo zutik gelditzen da. Maritxo alki gañean jartzen da, erori balitz bezela, ta burua bera ta inñori begiratu gabe gelditzen da. Geldi aldia.)

Bañan, iya illunpetan gaude emen. Bigar Dagonillaren amabosta. Egunak laburtzen dijoazela nola ezagun dan.

(Altxa ta Maritxo'ri)

Itxoin pixka bat, Sor Maria Anjelika, argi bat ekartzera nua ta. Orrela zure anayaren arpegia obetoago ikusiko dezu.

(Lekaidaba atzetik joaten da. Arroxo altxa, Ramuntxo'gana pauso bat eman eta gelditzen da. Ramuntxo'k, bere eskuetan boinari jira emanaz, Ama Birjiñaren iru-

diari begiratzten dio. Maritxo, len bezela, ixil eta eroria dago. Itz bat ere ez da beren artean sortzen. Geldi-aldi baten ondoren Lekaidaba argi batekin etortzen da, ta mai gañean uzten du.)

(Arroxko'ri Ramuntxo erakutsiaz)

¿Eta au?... ¿Beste anairen bat izango da noski?

ARROXKO.—Ez, ama; nere lagun bat da, laguna besterik ez.

LEKAIDABA.—¿Bañan, zergatik altxa zerate? Goazen, exeri zaitzte. Anaya arrebaren aldamenean. Zu, emen.

(Arroxko Maritxo'ren aldamenean eta Ramuntxo aurrean exeri-azitzen ditu.)

Eta itzegin zazute orain zuen erriko gauzetaz... Ainbeste zer esan izango dezute... Baña, nola, ¿itzegitea lotsatu egiten al zerate? ¿Ni aurrean nagolako onean?... Ori besterik ez bada laster antolatuko degu.

(Altxiaz) Orra bada, bakarrik uzten zaituztet, eta era ortan alkarri nai guzia esan zenezaioteke.

(Ramuntxo'gatik) Gazte au nerekin datorrela, ta baratzara joan-etorri bat egingo degu.

ARROXKO.—Ez, Ama; ez dijoala nere laguna, geldi dedilla... Orrengatik ez digu ajolik.

LEKAIDABA.—Ederki. Orrela biak berearekin itzegingo dezute... Or gelditzen zerate, bada,...

Bañan, au nere burua; bideko ibilketaz nekatuta, onenean egarriak zerate, ta esateko bildurrez... eta ni orretaz batere gogoratu gabe.

(*Maritxo'ri*) Sor Maria Anjelika, atoz nerekin, eta labetako txiki bat ekarriko diegu; orduan baliteke itzegiteko gogo geyago izatea. Goazen bada billa.

(*Lekaidaba joaten da, ta bere ondoren Maritxo.*)

IRUGARREN IRUDIA

III

RAMUNTZO TA ARROXKO

ARROXKO (*Ramuntxo'ri alderaztuaz*).
—Lenago, bakarrik utzi gaituztenean,

¿esan bear iyokana, zergatik ez diok esan?

RAMUNTXO. — Zergatik ez diyodan esan... uste al dek neronek ere dakidala?

ARROXKO (*Latz xamar*).—Nik baze-kiat bada. Bildurra dekalako.

RAMUNTXO (*Besteak bezela latz xamar*).—Balitekek... ¿eta ala izanda ere, zer?

ARROXKO.—Ez diat ulertzen zeren bildurra.

RAMUNTXO.—Ik daukakenena. Etzakala emen ire burua arroxko egin, ni baño kementsuago ez aiz ta.

ARROXKO.—Auxe ere astokeria dek bada... Ik ez badiok ezer esan bear... ¿zer egin bear diagu emen?

RAMUNTXO.—Esan bear dedana esango zioat. Egin bear dana egingo diat. Ori nere egitekoa dek.

ARROXKO.—Irea... ta nereea ere bai. Zerbaitetarako lau illabetean onera etorri bearrarekin jardun diagu. Zerbaitetarako onera etorri gaituk... (*Eztitsuago*) Ai zak: nai al dek nik esatea?

RAMUNTXO.—Ez, ori ez; asarretuko nindukek. Ori, nere egitekoa dala, len ere esan diat.

ARROXKO.—Bai... ta ik ixilik egon bear badek...

RAMUNTXO.—¡Laga nazak, Arroxko, laga nazak..... Nere barrenen une onetan zer dabillen ik ezin ulertu dezakek...

LAUGARREN IRUDIA

V

Lengoak, Maritxo, Lekaidaba ta
Sor Balentina

(Maritxo ta Sor Balentina'k piñuzko mai txuri bat dakarte. Sor Balentina'k ekarriko du gañera sagardo bonbil bat. Lekaidabak gazta ta pikuak bi plateretan ekarriko ditu. Mai gañean jarriko ditu laban bat eta bi basorekin batean.)

ARROXKO (*Bere artean*).—Auxe bear genikan orain. (*Ordulariari begiratuaz*) Eta orduak aurrera ziaztik.

LEKAIDABA (*Bonbilla iriki ta sagardoa basoetara botiaz*).—Ia sagardo au zer iduritzen zaizute. Gure apaiz jaun onak egiten digun emaitz bat da. Gaxo daudenen-tzat urtero bonbil batzuek bialtzen dizki-gu. Bañan tira, asi zaitezte, asi.

(*Bi mutillak zalantzaz daude.*)

RAMUNTXO (*Erdi ixilik*).—Ez, Ama; eskerrik asko.

LEKAIDABA.—Eskerrak jan ta gero ematen dira. Tira goazen... (*Bata bestearen aurreran exeri-azitzen ditu.*)

Noiz zuen mingain oiek azkatuko ote diran zalantzaz nago.

(*Maritxo'ri*) Sor Maria Anjelika: gazta eman zayozute, berak artzeko ez dute kemenik izango ta.

(*Maritxo'k gazta ematen diote.*) Zalburdiaren gidariari labetakoa bialdu diogu... A! Zaldiaz ez naiz gogoratu. Tonino, gure astoak bere janaritik zerbait utziko die.

ARROXKO.—Eskerrik asko, baña ez dute ezeren bearrik. Ostatutik gatoz, eta an

sabelak ondo beteak dira. Gau guzian gelditu gabe ibiltzeko ain badute.

LEKAIDABA.—¿Gau guzian? ¿Bañan, gabaz joateko asmoa al dezute? ¿Ta orain jartzen ari duen egualdiarekin? Erokeri bat izango litzake. Ostatuan oi onak eta garbiak badauzkazute... ta apaiz jaunaren etxean ere bai.

ARROXKO (*Ordulariari berriro begiratu ta Ramuntxo'ri larri-keñu bat egiñaz*).—Ez, Ama, eskerrik asko... zai dauzkagu... ta gañera ordua degu.

LEKAIDABA.—¿Nola, ordua? Ta oraindik Sor Maria Anjelika'ri ez dizkiozute bi itz esan. “¿Nere anaya ikustera etorriko ote zait?” zure arreba beti esaten ari ziztaigun.

(*Maritxo'ri*) Ta orain zeorri ere mutututa gelditu zera.

(*Gizonezkoai*) Tira, tira: edan zazute.

(*Edaten dute. Une onetatik, Lekaidabak Sor Balentina'kin itzegiñaz, bi gizonak zaitzen ditu. Mutillak ez dute jan itxurik egiten. Maritxo zut-zutik Arroxo'ren aldamenean giza-irudi bat dirudilla dago.*)

MARITXO (*Arroxo'ri, il batek itzegingo luken eran*).—¿Eta ama?... ¿Etxean

beti bakarrik?... Orrek nauka kezketan...
Gabetan ere...

ARROXKO.—Gabaz, ez. Kattalliñek gu-
re etxean lo egiten du. Bañan, nolanaire,
bai, bakardean bizi da, ta zurekin egin
zuenaz ondo damutu zayola uste det. Be-
re erruz, azken egunak bakartasun tama-
lean igaro bearko ditu.

MARITXO (*Geldi-aldi labur baten ondo-
rean, Ramuntxo'gatik dio.*).—¿Eta ori?..
¿Errira biurtu al da berriro?... ¿Len be-
zela alkarrekin lan egiten al dezute?

RAMUNTXO (*Lenengo aldiz Maritxo'ri
arpegira begiratuaz eta itz geldi ta itzala-
rekin.*).—Ez; ni, bigar, Santander'a nua,
andik Amerika'ra juateko.

MARITXO.—A, bai... osaba Inazio...
nik beti uste izan det... zuk...

(*Itza eztarrian iltzen zayo. Geldi-
aldia.*)

LEKAIDABA (*Alderatuaz eta latz xa-
mar.*).—¿Eta zer? ¿Ori al da itzegin biar
dezuten guzia? ¿Urte betean ikusi ez di-
ran anai arrebak ez al dute beste zer esa-
nik?

(*Maritxo, Arroxko'gandik aldendu ta
iruditegian aurreratzen da.*)

Ez. Au ez da gauz egokia. Urrutitik oneraño etortzea, ixilik egoteko, alkarri itzaltsu begiratzeko, nolabaiteko keñu ta iñozokeriak egiteko... Ez; ez da gauz egokia. Ta nola zuek, ixilik zaudeten, nik itzegingo det, eta argi ta garbi itzegingo det.

(Sor Balentina'ri) Sor Balentina, une batean alde egin zazu. Jaten ez duten eta itzik ere egiten ez duten gazte abekin, zerbait esan biarrean arkitzen naiz.

(Sor Balentina eskuiko atetik joaten da.)

BOSTGARREN IRUDIA

V

Maritxo, Lekaidaba, Ramuntxo
ta Arroxo

(Lekaidabak, Sor Balentina juan dan atea ondo itxia dagon ikusi ta ondoren oso latz itzegiten du.)

LEKAIDABA.—Eta orain, gauzak garbi.

(*Arroxko'ri*) Zu, ikusten det orren anaya zerala, Sor Maria Anjelika'ren begi berak dituzu ta...

(*Ramuntxo'ri*) Bañan zu, nere semea, zu Ramuntxo deitzen zera. Oker ari al naiz? Esaidazu ala etzerala.

RAMUNTZO (*Atsekabetua*).—Bai, Ama: Ramuntxo naiz.

LEKAIDABA (*Zorroztasun extitsuarekin*) —Orduan, nere semea, ¿zergatik zaude emen?

RAMUNTZO (*Altxiaz*).—¿Ni onera etortzia billaukeriren bat al da? Ori, nere andregaya zan; eta, Ama, nere izena asmatu dezunian, zu ere jakiñen gañean zaude la garbi agiri da. Ludian etzait ezer gelditzen. Ori gabe, ez kemen, ez itxaropen, ezer ere gabe arkitzen naiz.

(*Maritxo arrizkoa balitz bezela dago. Ramuntxo alderatu ta esaten dio*):

Txiki txikitatik, aurtxoak giñanetik, ¿nere emazte izateko itza ez zenidan eman? Esaidazu, Maritxo..., esaidazu.

LEKAIDABA (*Bien tartean jarririk*).—Nere seme, Maritxo'rik ez dago emen. Nere alaba Maria Anjelika'ri itzegin biar dio-

zunean, neri Ama bezela, oni Arreba deitu biar diozu. Maritxo illa da.

RAMUNTXO.—Bai, ikusten det... illa da... or dago, nere begien aurrean daukat. Bañan ori... ori ez da. Arpegi itzal ori, ezagutzen ez nauen begiratu bare ori, ez dira Maritxo'renak.

(Arroxko altxatzen da. Ordulariari begiratu bat eta Ramuntxo'ri beste bat egin eta atzera ta aurrera dabil.)

Zuek ezin ulertu zenezateke... mojak zerate... onak, txit onak, bai noski; bañan zuek ez dezute onelako atsekaberik izan, ez dezute biozkadik eraman. Gaiztoak etzeratela ikusten det... bañan nereztat errukirik izango ez dala ere bai.

(Alki gañera erortzen da; ukalondoak mayean jarri ta burua gordetzen du. Maritxo'k errosarioa eskuetan duela ixilik otoi egiten du.)

ARROXKO *(Ramuntxo'ri alderatuaz)*. —Goazemak, Ramuntxo. Gizon bezela auzi au erabakitzeke kemenik ez dek izan, gure asmoetan uts egin diagu... altxa adi ta goazemak.

LEKAIDABA *(Ramuntxo'gana alderatuaz)*. — ¡Zoro gaizoa! ¡Biozkadik ez de-

gula beñere eraman, diozu? Ala usteko de-
zu zuk... Bañan orain itzegiten dizun
Jaungoikoaren otsein onek berak esan le-
zaizuke, Jaunaren pake donean bakarrik
bere biotzeko zaurientzat sendagaia ar-
kitu zuela. Illak gaude, bai, ludirako
illak; bañan, gure barrenen Jaunaren be-
so errukitsuak sendotu ta sutzen ditu gu-
re biotzak, besteen atsekabeak ezagutze-
ko, besteen naigabetzaz kupitzeko, ta ale-
giñean laguntzeko.

RAMUNTZO (*Altxa, ta oso sutsu*).—Ba-
ñan, esan zaidazu: ¿neri egin didatena
ondo al dago? ¿Neri andregaya lapurtu
didaten bezela lapurtzea, bidezkoa al da?

LEKAIDABA.—Andregaya lapurtu zizu-
tenean —eta zure itz berakin erantzuten
dizut—, andregaya lapurtu zizutenean an
egon banitz, nere aldetik ez nuen orrela-
korik egiten utziko. Gure Jaungoiko onak
ez du orrelako garrastasunik agintzen. Ba-
ñan, seme, onera ekarri zidatenerako, lu-
dirako illa zan, gure bizibide doneko ka-
teakin lotua zegoen.

ARROXKO (*Larriturik Ramuntxo'ri*).—
Mutil, goazemak; berriketa oyek guziak
alperrikakoak dituk. Trenak ez dik itxoin-
go ta ontziak gutxiago.

(*Ramuntxo joateko asmoan abiatzen da, bañan bat batetan biurtzen da berriro.*)

RAMUNT XO.—Ama, joan baño len, zuk onetsitza nai nuke... (*Maritxo'ri begira*) ta orrek ere bai. ¿Geyago ikusiko ez dezuten oneri, ori ukatuko diozute?

LEKAIDABA.—Nik onetsi... seme, gauza gutxi... utsa da. Biyotz osoarekin egingo nizuke... ta orrek ere bai. Baña, guri baño obetoago, gure Ama errukitsuari eskatu bear diozu. Irudi done orren aurrean belaunikatu zaite, ta bear dezun laguntza eskatzen, geok gure otoitzakin lagunduko dizugu.

(*Irudiaren aurrera eraman nairik*)
Atoz, seme, belaunikatu zaite.

RAMUNT XO (*Belaunikatzera dijoala, bat batetan zutitu ta atzeratzen da.*).—Ez, ez; zuengandik, ori ere iritxi gabe, joan nayago det... Zuen otoitzak ostutzea izango litzake... Ez, gorde zaizkizute... Zuek ez dakizute. Oraindik ez det guzia aitortu: ni onera, burua asmo txarrez beteta etorri naiz. (*Geroago ta sutsuago*) ¡Ori lapurtzeko asmoakin etorri naiz! Bestela ezin bazan, nai ta nai ez, indarrean nero-

nekin eramateko... Bai, Ama, jakin zazu, asmo oiekin etorri naiz ni onera.

LEKAIDABA.—Aur-ametsak, umekeriak. Gure Jaungoiko onak barkatuko dizkizu noski.

RAMUNTZO (*Sutsuago oraindik*).—¡Umekeriak! ¡Aur-ametsak! Ez, Ama, gizonaren egin-gai ondo asmatuak baizik. Sei illabete bada buruan besterik ez dabilkidala. Ta gure egin gaia ondo zuzendu degu; ezer ere etzaigu aztu. Azkenean orrentzako soñekoak zalburdian dauzkaugu moja-jazkia aldatzeko.

(*Sakeletik paper bat ateriaz*) Eta ona emen, Buenos Aires'etara joateko, ontzirako, nerearekin batean, orrentzat artu dedan txartela.

(*Maritxo oso geldirik, kinkik egin gabe dago. Otoi egiten duela, ezpañetan bakarrik ezagun zayo. Maritxo'k begiratu ez arren, Ramuntxo'k txartela erakusten dio.*)

Begira zazu. Irakurri zazu. Ona non jartzen duen: Mari Detxarri.

(*Papera puskatu ta Birjiñaren oñetara botatzen du.*)

(*Lekaidaba'ri*) Bein Amerika'ra iritxi ezkerro ¡moja-etxetik iges egiña zala, nork

jakingo zuen? Ezkonduko giñan, besteak ezkontzen diran bezela. Lana egingo nuen gogotsu, etxean zorionaren jabe nere orrekin izateagatik... ¿Naiko ote zuen?... Orain begiratzen diot eta ez dakit. Jazki orren barrenen oso aldatu didate... Etxe onetan sartu naizenetik galdua naizela ezagutu det. Illa dago, zuk esan didazun bezela, illa; ta illa badago ez du atsekabe garratzik izango. Ez det nai ere izaterik.

(*Maritxo'ri*) Ez nuke nai nik daramadan neke samiñik eramatea. Egin didazun guzia barkatzen dizut.

(*Lekaidaba'ri*) Ikusi dezue orain, Ama, nolako gizon onetsitzera zinjoazen. Ez; ez nazu onetsi bear. Gaizkille bat bezela alde egitea zuzenagoa da. Joango naiz, urrutira, oso urrutira, bakarrik, bakar bakarrik, iñork nere berri jakingo ez duen toki urrunean, antsi ta malko zorigaitzez iltzera.

LEKAIDABA (*Oso eztitsu ta kupitsu*).— Seme, asmo oyek artu zenituen, bañan, ez zenituela egingo ere, ezagutuko zenuen noski. Zu bezela negar-antsika daudena-gatik gure Jesus ona gurutzean il zan. Beragatik gure Ama Mariak otoi egiten du. Gure Ama on eta errukitsu au da etxe

onetako zaindaria. Berak arrisku guzietatik gordetzen gaitu. Berak, etxe onetan sartu zeranian, biotza ikutu dizu.

*(Ramuntxo Birjiñaren oñetara eraman
nai du. Baña onek, burua beste aldera jiriaz,
nai-eza azaltzen du.)*

Atoz bada, seme. Berak deitzen dizu,
zai daukazu, eztitsu agintzen dizu.

*(Ramuntxo iya artaratua. Lekaidaba
geroago ta sutsuago.)*

Goazen, seme,...

*(Ramuntxo, zotinka Birjiñaren aurrean
belaunikatzen da. Lekaidabak Maritxo
Ramuntxo'ren aldamenean belaunikatu-azitzen
du, ta otoi egiten du.)*

Ama Maria: barka zaiozu, beraz kupi
zaite, onetsi zazu ta bere bidalde luzean
lagundu zaiozu. Gure Jesus onaren ize-
nean eskatzen dizugu.

(Angelus eskillan entzuten da.)

(Maritxo'ri) Sor Maria Anjelika: Bir-
jiñaren oñetan nere otoitza berritu zazu.

MARITXO *(Oso otz, batere bizitasunik
gabe).*—Ama Maria: bere bidalde luzean

lagundu zaiozu. Gure Jesus onaren ize-
nean eskatzen dizugu.

*(Ramuntxo'k oso zoraturik Maritxo'
ren gerriko zintzilikakoari muñ ematen
dio ta atzeko ate alderuntz juaten da.)*

LEKAIDABA.—Zure lagunak ordua dala
dio, ta zuaz, seme. Guk guziok egunero
zure alde otoi egingo degu.

SEIGARREN IRUDIA

VI

Lengoak, Sor Balentina ta Mojak

*(Angelus eskilla entzun ta laster Mojak
eta Sor Balentina eskuiko atetik sartu ta
ate beraren aurrean geldituko dira, Mojak
binaka, ta azkena Sor Balentina.)*

Ramuntxo atzera joaten danean, Maritxo Sor Balentina'ren aldamenean jarriko da.)

LEKAIDABA (*Mojai*).—Sor Balentina joateko illun xamar egongo da, ta gazteetako batek atera lagundu bearko die abei. Zuk, Sor Maria Anjelika, zerorrek lagundu zayezu.

MARITXO (*Oso ikaratua Lekaidaba alderatu ta belarrira*).—Ama, kupitu zaitte... oyekin banua, galdua naiz... ziur ikusten det, galdua naiz.

LEKAIDABA (*Ixil antzean*).—Nolanai dala ere, alaba, zuaz. Nik agintzen dizut. Zure zoria azkeneraño jarrai zazu. Orrela zeruan aintzatuagoa izango zera.

(Ezer ez balitz bezela, ta Maritxo'ri giltza emanaz.)

Tori giltza, ta itxitzerakoan ezkerrarekin kalkatu bear dala badakizu. Ta laster etorri zaite, eguneroko otoitzak astera guaz ta.

(Gizasemeai) Sor Maria Anjelika'ren ondotik zuazte, ta Jaunaren pake donea zuekin izan dedilla.

(Bi gizonak, itzal eta geldi, Maritxo' ren ondotik joaten dira.)

ZAZPIGARREN IRUDIA

VII

Lekaidaba ta Lekaimeak

LEKAIDABA (*Joaten diranean Lekaidaba aurreratzen da, ta bat batetan ate alde-ra egiten du, gelditu-azitzeko bezela; bañan berriro biurtzen da.*)

(*Beretzat*).—Ez... orrela obe da. Jaungoikoak berak erabaki dezala, ta beti, zerruan eta lurrean, bere naimena egin dedilla.

(*Lekaiameai batetako gogo sutsuarekin*) Belauniko, alabak, guztiak belauniko. Beartasun aundi batean guretako bat arkitzen da. Otoi gartsu bat Jainkoaren oñetara igo-azi dezagun.

(*Lekaiameak, binaka, aldare aurrean belaunikatzen dira. Azkena Lekaidaba. Abesten dute:*)

LEKAIDABA.—O Crux,...

GUZTIAK.—O Crux ave, spes unica,

LEKAIDABA.—Ama maitea: erdi galduan dabillen ardi atsekabea biurtu zaidazu.

(*Abestuaz*) Hoc...

GUZTIAK.—Hoc passionis tempore

VIII

Lengoak eta Maritxo

(*Maritxo, lasterka, zoratua bezela, sartzen da. Lekaidabak besoak luzatzen dizkio, bañan ikusi're gabe, Maritxo Sor Balentina'ren aldamenean belaunikatzen da*).

MARITXO. ¡Zeruko Ama laztana, emen naiz! Otsein onengana zure begi errukitsuak biurtu itzazu.

LEKAIDABA (*Abestuaz*).—Piis...

GUZTIAK.—Piis adauge gratiam,

(*Zalburdiaren zintzarri otsa aldendutzen dijoala entzuten da*).

(*Ezkuta-zapia geldi geldirik jexten asten da*).

LEKAIDABA.—Reisque...

GUZTIAK.—Reisque dele crimina.

LEKAIDABA.—Te, fons...

GUZTIAK.—Te, fons salutis, Trinitas.

LEKAIDABA.—Collaudet...

GUZTIAK.—Collaudet omnis spiritus:

LEKAIDABA.—Quibus...

GUZTIAK.—Quibus Crucis victoriam

LEKAIDABA.—Largiris,...

GUZTIAK.—Largiris, adde praemium.

EZKUTA-ZAPIA JETXI DA

AMAYA

ORAINDAÑOKO LIBURUAK:

R. Artola

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.

M. Soroa

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

P. Apalategui, S. J.

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

Pepe Artola

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.

P. M. Urruzuno

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk

Toribio Alzaga Anabitarte

RAMUNTXXO, iru egintza ta sei laukidun
antzzeria.

